



**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA**
Etxebizitza Sailburuordetza
Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES**
Viceconsejería de Vivienda
Dirección de Vivienda, Innovación y Control

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

URTEKO TXOSTENA 2005. URTEA

URTEKO TXOSTENA 2005. URTEA

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

AURKIBIDEA

1.- AURREKARIAK	2
2.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK	3
2.1.- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua	3
2.2.- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra .	13
3.- IRISGARRITASUN ARLOKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA	23
3.1.- Kontsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua	23
3.2.- Irisgarritasuna Sustatzeko Batzorde Iraunkorarentzat eta Euskal Kontseiluarentzat laguntza teknikoa.	26
3.3.- 2005. urtean osaturiko edo osatze-prozesuan dauden udaletako Irisgarritasun Planei buruzko txostena.	27
4.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUARI PROPOSATURIKO GAIEN LABURPENA	29
4.1.- Txosten-eskaerak eta kontsultak	29
4.2.- Salbuespenak jakinaraztea.....	33
5.- UDALETAKO IRISGARRITASUN PLANETARAKO ETA OBRETARAKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN DEIALDIA.....	47

1.- AURREKARIAK

Irsgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea honako helburu honekin onartu zen: hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irsgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugigarritasun murriztua, komunikazio-zailtasunak edo muga psikiko zein sensorialak, aldi baterako zein betirako, dituztenek era autonomoan erabil eta balia ditzaten.

20/1997 Legearen V. idazpuruan IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA aipatzen da; lege horren 24. artikuluan honako hau ezartzen da: administrazioek, ezinduen ordezkari diren erakundeek eta elkarteek, erabiltzaileek, sustatzaileek eta profesionalen elkargoek osaturiko aholku-organo eta organo parte-hartzailea dela, 25. artikuluan xedaturiko osaerarekin. Irsgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilu horren eginkizunak honako hauek dira, 26. artikuluari jarraiki:

- a) Urtean behin txosten bat egitea, lege horretan ezarritakoa zein mailataraino betetzen den ezagutarazteko, eta gero Legebiltzarrera bidaltzea.
- b) Irsgarritasunaren arloan eskumenak dituzten organoei aholku ematea eta jarduteko irizpideak proposatzea, lege horretan xedatutakoaren arabera.
- c) Horren antolamendu eta funtzionamendurako araudia onestea.
- d) Bere esku uzten diren beste egiteko batzuk.

2.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK.

2005. urtean, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua behin bildu da. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra 2006ko otsailaren 21ean bildu zen, agenda-arazoak zirela-eta bilera hori ezin izan zelako 2005. urtea amaitu aurretik egin.

- 2005eko ekainaren 27an, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua bildu zen.
- 2006ko otsailaren 21ean, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra bildu zen.

Jarraian, bilera horietako akten eta landutako gaien laburpena azalduko dugu.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2005/06/27ko bilera.

Bertaratuak:

Etxebizitza Sailburuordetza

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Industria, Merkataritza eta Turismo Saila

Arabako Foru Aldundia

Gizarte Politikarako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia

UNECA – Arabako Eraikuntzako Enpresaburuen Batasuna

Arabako Arkitektoen Elkargoa. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala

Euskal Herriko Erretiratu eta Pentsiodunen Federazioa

Elkartean Gipuzkoa. EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea

Elkartean Araba. EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea

Elkartean Bizkaia. EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea

ONCE.

Gipuzkoako Gorren Elkartea

Bizkaiko Gorren Elkartea

Laguntza teknikoa:

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren Idazkaritza.
Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza.

Irisgarritasun arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren arkitektoa

Irisgarritasun arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren abokatua

2005eko ekainaren 27an, Etxebizitza sailburuordeak bilerari hasiera eman dio. Bertaratuei esker ona adierazi eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburu Javier Madrazo Lavín jauna ezin izan dela etorri azaldu ondoren, sailburuordeak azalpen labur bat egin du, Etxebizitza Sailak azken lau urteetan irisgarritasunaren arloan egindako jardunei buruz. Hala, haien lokalen irisgarritasuna hobetzeko obrak egingo dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuentzat ere diru-laguntzak izango direla adierazi du. Bestetik, arau-aldaketa baten berri eman du; horren arabera, ezinduak etxebizitza-merkatuan sartzeko eskatutako baremoa murriztu da: lehen, 12 puntu behar ziren; orain, berriz, 7 puntu besterik ez.

Etxebizitza sailburuordeak bertaratuei jakinarazi die Sailak irisgarritasuna sustatzeko diru-laguntza lerroa bultzatzen jarraitzeko asmoa duela.

Jarraian, Etxebizitza sailburuordeak Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariari eman dio hitza. Lehenik eta behin, osoko bilkuran bertaratu direnak agurtu eta esker ona adierazi die zuzendariak, eta, jarraian, nork bere burua aurkezteko eta zer erakundetatik datozen adierazteko eskaera egin die.

Aurkezpenak amaitu ostean, deialdian proposaturiko **Gai Zerrendari** heldu zaio.

Lehen puntua: Aurreko Kontseiluaren akta irakurri eta onartzea (2004ko ekainaren 28a)

ERABAKIA: 2004ko ekainaren 28ko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren Akta onartzea.

Bigarren puntua: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2004. ekitaldiko urteko Txostena aurkeztea, eta, hala badagokio, onartzea.

ERABAKIA: 2004ko abenduaren 14ko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren Aktan, Gai Zerrendaren lehen puntuan, "heldulekuak" dioen tokian "izuaren aurkako barrak" jartzea.

ERABAKIA: Urteko Txostenean, ordezkarien izen propioen ordezkari, izen propio horiek ordezkatzeko erakunde edo elkarten izenak jartzea.

ERABAKIA: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2004. ekitaldiko Urteko Txostena onartzea, eta, jarraian, Legebiltzarrera igortzea.

Hirugarren puntua: 2004ko abenduaren 14ko bileran, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek eztabaidatutako gaiak.

a) Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean aurreikusitako zehatzeko araubidea aplikatzea.

Irisgarritasun arloko Laguntza Zerbitzuak horri buruzko Txostenaren edukia azaldu du. Txosten hori igorritako Gai Zerrendarekin batera aurkeztu zen, eta zehatzeko araubidea abian jartzearen indarreko araudiak ezarritako prozeduraren berri ematen du. Hain zuzen ere, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek 2004ko abenduaren 14ko bileran hartutako erabaki betez landu da txosten hori.

Elkartean Gipuzkoa-ko ordezkariak uste du Administrazioak esku-hartze handiagoa izan behar duela zehatzeko prozeduran.

Arabako Foru Aldundiko eta UNECAko ordezkariak, berriz, honako hau nabarmendu dute: alde handia egon liteke Legean aurreikusitako zenbait zigorren

eta Lege horretan bertan bildutako zenbait arau-hausteren artean. Gainera, araudian "arduradunei" buruz emandako definizioarekiko kezka adierazi dute.

b) Oinezkoen pasabideen egungo zolatzetik eratorritako problematikari dagokionez egindako ikerketari buruzko informazioa.

Irisgarritasun arloko Laguntza Zerbitzuak egindako Txostenaren edukiaren berri eman du. Igorritako Gai Zerrendarekin batera aurkeztu da dokumentu hori. Elkartean-ek eskatuta egin da txostena, eta ONCEri helarazteko erabakia hartu da.

Oinezkoen pasabideetako zoladurek bereizgarriak (testuran eta kolorean) eta irristagaitzak behar dutela adierazi da, eta horri lehentasuna eman behar zaiola.

Arabako Foru Aldundiko ordezkariak adierazi du arauak neurrigabe zehaztea azken buruan kaltegarria gerta daitekeela. Gehiegi zehazten diren arauak oso zurrinak gerta daitezke aplikatzerakoan, eta horrek ondorio kaltegarriak ekar ditzake. Arabako Foru Aldundiaren ordezkariaren ustetan, ez dago zertan zolatzeko mota hautatu behar; askoz egokiagozat jotzen du, ordea, erabili beharreko zoladurak bereizgarria eta irristagaitza behar duela zehaztea.

ONCEren ordezkariak adierazi du oso zaila dela oro har zoladura egokia zein den zehaztea; haren ustetan, gai hori kasuan kasu balioetsi behar da, eta kolektibo guztien beharrak aintzat hartuta.

c) Etxebizitzak egokitzeko jardunen balioespenari buruzko txostena.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak eta Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren Idazkaritzak bertaratuei Gai Zerrendarekin batera ekarritako txostenaren ildo nagusiak adierazi dituzte.

Elkartean Gipuzkoa-ren ordezkariak nabarmendu nahi izan du sustatzaileak eta etxebizitzak egokitu behar dituzten esleipendunak ados jarri beharra; hala, profesional berek egingo dituzte egin beharreko egokitzapen guztiak, nola sustatzaileek hala esleipendunek ordaindu beharrekoak. Horixe da irtenbide praktikoa eta eraginkorra, eta, gainera, prozesuan inplikaturako inori ez dio kalterik eragiten.

UNECAk bidezkoztat jo du iradokizun hori, eta normalean horrela jarduten dela gaineratu du, betiere kasuaren gorabeherak horretarako bide ematen badute.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritzak aipatu duenez, etxebizitza esleitu zaion pertsonak zer ezintasun-maila duen ez jakiteak nabarmen zailtzen ditu kasu bakoitzean egin beharreko egokitzapenak. Zoritxarrez egoera hori maiz gertatzen dela gaineratu du.

Eztabaidan zehar, Bizkaiko Gorren Elkartearen ordezkariak adierazi du etxebizitzak gordetzeko kupoa ezinduen kolektibo guztietara zabaldu beharko litzatekeela.

Orobat, esleitu ondoren etxebizitzak finantzatzeko arazoak daudela aipatu du; izan ere, ezinduentat zaila da lan-merkatuan sartzea, hipoteka-mailegu bati aurre egitea ahalbidetuko luketen baldintza ekonomikoetan.

Etxebizitza Sailburuordetzak erantzun du gai horiek 2009ko Etxebizitza Planean planteatuko direla.

Laugarren puntua: Irisgarritasunaren arloko ez-betetzeei dagozkien salaketetan indarreko antolamenduak aurreikusitako jardunbideak: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari planteatutako kasuak eta egindako jardunak. Eskumeneko esparruak.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak zenbait jardunen berri eman du, hain zuzen ere bere esku-hartzea eskatu dioten salaketetan Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak aurrera eraman dituen jardunen berri.

Eskatutako esku-hartzeetan, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak kasu bakoitzean jarduteko eskumenak dituen erakundeari igorri dio salaketa, eta, halaber, irisgarritasunaren arloko indarreko araudiak kasu bakoitzerako aurreikusitakoaren berri eman du.

Etxebizitza Zuzendaritzak Lurralde Ordezkaritzari igorriko dizkie horrelako esku-hartzeetarako jardunbideak, EAEn esparruan kasu horietarako irizpideak bateratzeko.

Bosgarren puntua: Irisgarritasun-planak egiteko edo irisgarritasuna bermatzeko obrak gauzatzeko diru-laguntzen deialdia. Deialdi berria.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritzak zenbatekoak eman ditu aditzera, hain zuzen ere irisgarritasuna diruz laguntzera bideraturiko zenbatekoak: 12.000.000 euro 2001-2004 bitartean. Diru-laguntzak jaso dituzten udalerrien kopurua ere jakinarazi du: 90. Datu horiek guztiak aintzat hartuta, euskal biztanleria guztiaren % 68,26 horren eraginpean dago.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak azaldu duenez, irisgarritasuna sustatzeko laguntzek Irisgarritasun Planak egitea izan zuten helburutzat hasiera batean, baita Udalek obrak garatu eta hiri-ekipamenduak erostea ere. Ondoren, 2003-2004 deialdian, irisgarritasuna bermatzeko obrak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeetara ere zabaldu ziren laguntza horiek.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak jakinarazi du irisgarritasuna sustatzeko diru-laguntza deialdi berria egin dela. EHAAn argitaratu da, 2005eko ekainaren 2an.

Deialdian ezarri denez, interesdunek hilabeteko epea dute espedienteak aurkezteko, eta deialdi honek 2.890.000 euroko zenbatekoa izango du. Horietatik 2.390.000 euro Udaletara eta erakunde txikiagoetara bideratuko dira, eta 500.000 euro elkarteetara. Diru-laguntza emateko mugak % 50i eutsiko dio, hain zuzen ere, irisgarritasunerako obraren edo obra-partidaren % 50i.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak deialdi honen berrikuntzetako batzuk azaldu ditu:

- A) Diru-laguntzak Irisgarritasun Planetan bildutako obretara bideratuko dira. Kontua da diru-laguntza horiek "irisgarritasun-proiektu global" baten parte diren esku-hartzeetara bideratu behar direla, eta ez egiturazko esku-hartzeetara. Hala, Udalek beren Irisgarritasun Planak abian jar ditzaten sustatuko da.
- B) Aurrez azaldutakoaren arabera, diruz lagundu beharreko esku-hartzearen baremoa ezartzerakoan, esku-hartze hori Planean lehentasunezkoztat jotzea hartuko da aintzat.

- C) Biztanle kopuruaren ponderazioa egin da, eskuragarri dauden partidak orekatzeko eta, nolabait, Udal txikienek eta, ondorioz, baliabide gutxien dituztenek, laguntzak izan ditzaten errazteko.
- D) Diru-laguntza eskatuko den esku-hartzearen baremoa ezartzerakoan, lehen mailako zerbitzu publikoei dagozkien obrak lehenetsiko dira. Gainera, Planei lehentasuna emango zaie obren edo ekipamenduak erostearen aldean.

Seigarren puntua: Informazio eta Komunikazio proiektua. Web orria

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritzak irisgarritasunari buruzko web orriaren ezaugarri nagusiak azaldu ditu. Etxebideren bitartez web orrian sartzeko bidea ezarri nahi da. Behin-behingo jarriko da, egokitzen joko diren berrikuntza edo aldaketak ekartzeko moduan.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren Idazkaritzak egokitzen du web orriak laguntzei edo berrikuntza teknikoei buruzko loturekin kontaktatzeko aukera ematea.

Zazpigarren puntua: Gorren kolektiboaren Irisgarritasun Batzordearen landinamikari buruzko informazioa.

Bizkaiko Gorren Elkarteen ordezkariak gorren kolektiboak osatutako Batzordeak 68/2000 Dekretuaren Eranskinak aztertzeke zer lan-ildori jarraitu dien azaldu du, ondoren, beren ezintasunetik abiatuta, Kontseiluari helarazi beharreko iradokizunak ateratzeko.

Orobat, Bizkaiko Gorren Elkarteen ordezkariak egokitzen du bere lanetatik atera daitezkeen ondorioak Praktika Onen Eskuliburuan biltzea.

Elkartean Gipuzkoa-ren iritziz, kolektiboek nork bere aldetik jardutea ez da komeni, eta egokiagozat jotzen du kolektibo guztiak batera aritzea.

ONCEren aburuz, berriz, bi esparruek elkarren osagarri behar dute. Izan ere, batetik, argi dago kolektibo bakoitzak berariazko ezaugarriak dituela, eta, bestetik, esparru bakoitzean hartzen diren erabakiek guztion beharrekin bat etorri behar dutela.

Bizkaiko Gorren Elkartea bat dator ONCEren ordezkariak adierazitako irizpidearekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Zuzendaritza Nagusiak nabarmendu du garrantzi handikoa dela erakunde pribatu eta publiko guztiek eskakizun-lerro berean jardutea.

Horren haritik, bereziki Herri Administrazioetako Sailek inplikatu behar dutela nabarmendu du.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren Idazkaritzak, halaber, EUDELeK garrantzizko zeregina bete behar duela azpimarratu du, EAEko udalerrien iritziak bateratzen dituen erakundea den aldetik.

Zortzigarren puntua: Galde-eskeak

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ordezkariak hartu du hitza, plataforma jasotzaileen gaiari heltzeko, eta, zehazkiago, plataforma horiek segurtasunaren ikuspegitik aztertzeko. Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ordezkariak adierazi duenez, bestelako aparatuak (“sasijasogailuak”) merkaturatu dira plataforma jasotzaileetarako aurreikusitakoaren babesean, hau da, ezinduek berariaz erabiltzeko aparatu gisa saltzen dituzte, baina, Industria Sailaren iritziz, gurpil-aulkiak jasotzeko aparatuak baino ez dira.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ordezkariak jakinarazi du, halaber, eremu horren jardunbideak ezarriko dituen Agindua lantzen ari dela, eta horren haritik honako hau gaineratu du: igogailuen eremuan aurrerapen handiak egin dira teknikari eta diseinuari dagokienez, eta, horrenbestez, igogailuak ia kasu guztietan jar daitezkeela esan daiteke. Hortaz, aurreikuspenen arabera, ingurune publiko edo sasipublikoetan komunikazio bertikala ahalbidetuko duten igogailuak jarriko dira. Plataforma jasotzaileak, aldiz, igogailu bat jarri ezin daitekeen kasuetarako edo familia bakarreko etxebizitzetarako gordeko dira, betiere eskatutako gutxienezko segurtasun-baldintzak betetzen badituzte.

Agindu horrek eztabaidagaia arautu nahi du gai hori arautzen duen Zuzentaraua indarrean hasi arte, une horretatik aurrera, Zuzentaru horretan ezarritakoa hartu beharko da aintzat.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak adierazi du interesgarria litzatekeela berrikuntza teknikoei buruzko informazioa lortzeko aukera

emango luketen kontaktuak Kontseiluaren web orrira ekartzea, igogailuei zein bestelako aparatuei dagokienez (helbideak, merkaturatutako azken modeloak eta abar).

Aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak amaitutzat jo du 2005eko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren bilera.

Jarraian, **HARTUTAKO ERABAKIAK** azaltzen dira:

1. ERABAKIA: 2004ko ekainaren 28ko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren Akta onartzea.

2. ERABAKIA: 2004ko abenduaren 14ko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren Aktari Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak egindako zuzenketa ("heldulekuak" jartzen duen tokian "izuaren aurkako barrak" jartzea) eranstea.

3. ERABAKIA: Urteko Txostenean, ordezkarien izen propioen ordezkariak, izen propio horiek ordezkatzeko erakunde edo elkarten izenak jartzea.

4. ERABAKIA: 2004. ekitaldiko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Urteko Txostena onartzea, eta, jarraian, Legebiltzarrari igortzea.

**Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren
2006/02/21eko bilera**

Bertaratuak:

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren
Lehendakaritza.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

Eusko Jaurlaritza.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren Idazkaritza.

Kalitatea Kontrolatzeko eta Kalitatearen inguruko Araudiaren Zerbitziburua.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

Gizarte Ongizateko Zuzendaritza

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

Eusko Jaurlaritza

Zerbitzu Zuzendaritza

Kultura Saila

Eusko Jaurlaritza

Garraio eta Herri Lan Saila

Eusko Jaurlaritza

Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza

Eusko Jaurlaritza

Turismo Administrazioa eta Lehiakortasuna

Eusko Jaurlaritza

Gizarte Politikarako Zuzendaritza Nagusia

Gipuzkoako Foru Aldundia

Osakidetza. Zerbitzu Nagusiak

Arabako Foru Aldundia

Bideetako Ingeniarien Elkargoa

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala

UNECA – Arabako Eraikuntzako Enpresaburuen Batasuna

ONCE. Arabako Zuzendaritza Probintziala

Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioa - EKE.

Arabako Urritu Fisikoak - Eginaren Eginez. Elkartu – Elkartean

Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoa

Gorren Elkarteen Euskal Federazioa

Mugigarritasun eta Azpiegituretarako Zinegotzigoa

Donostiako Udala

Euskal Herriko Erretiratu eta Pentsiodunen Federazioa

Idazkaritza Nagusia

Bertaratu ezina azaldu dute:

Bizkaiko Foru Aldundia

Baliabide Orokorren Zuzendaritza

Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

Laguntza Teknikoa:

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Irisgarritasun arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren Zuzendaritza

Irisgarritasun arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren arkitektoa

Irisgarritasun arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren abokatua

2006ko otsailaren 21ean, Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Sailaren zuzendaria egon da bileraren buruan; bilerari hasiera emateko, bertaratuei esker ona adierazi die etortzeagatik.

Etxebizitza, berrikuntza eta Kontrol Sailak egindako proposamenari erantzunez, bileran bertaratu direnei nor bere burua aurkezteko aukera eman zaie. Jarraian, deialdian aurreikusitako **GAI ZERRENDARI** heldu zaio.

Lehen puntua: Aurreko Batzorde Iraunkorraren (2004-12-14) akta irakurtzea eta onartzea.

Aurreko Batzorde Iraunkorraren Aktan jasotako erabakiak bete direla azaldu du Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Sailaren zuzendariak.

ERABAKIA: Aurreko Batzorde Iraunkorraren (2004-12-14) akta irakurtzea eta onartzea.

Bigarren puntua: Plataforma jasotzaile bertikalen arloko arau-aurreikuspenei buruzko informazioa.

Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzaren ordezkariak hitza hartu du Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzaren Behin-behineko Instrukzioan edukia eta interpretazioa laburbiltzeko, mugigarritasun murriztuko ezinduentzako edo erabilera murriztuko plataforma jasotzaile bertikalei dagokienez.

Makinei buruzko Europako Zuzentaraua indarrean hasi arteko trantsizioaldi honetan, dokumentu hori baliagarria izango dela uste da, plataforma jasotzaile bertikalak jartzeko zer baldintza bete behar diren argitzen baitu.

Jarraian, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak Europako (EN 81-70 Araua) eta autonomiako (68/2000 Dekretua) igogailuei buruzko arau-aurreikuspenak konparatu ditu, Batzordearen baitan EN 81-70 Arauak ezarritako parametroak egokitze jartzeko aukera eztabaida dadin, bi araudiek zenbait alderditan bestelako eskakizunak dituztela aintzat hartuta (seinale akustikoak, eskudelen altuera, gelditzeko sakagailuak eta abar). Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzaren ordezkariak adierazi du alde horiek trabak jartzen dizkietela igogailuen fabrikatzaileei modeloak diseinatzerakoan, eta, horrenbestez, Sailera maiz jotzen dutela horri buruz kontsulta egitera. Ondorioz, aparatuak aldatu beharrean aurkitzen dira, autonomia-araudiaren eskakizunetara egokitzeko.

Batzorde Iraunkorraren bilerara bertaratu direnak 68/2000 Dekretuak ezarritako arau-aurreikuspenak aplikatzearen alde azaldu dira, orain artean jarraitu zaion jardun-irizpideari eutsiz.

ERABAKIA: Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzari Batzorde Iraunkorrek 68/2000 Dekretuan ezarritako arau-aurreikuspenak betetzeari eutsi nahi diola jakinaraztea, orain artean jarraitu zaion jardun-irizpideari eutsiz.

Hirugarren puntua: Informazioa, balioespen-irizpideak eta erabakia, Arabako Lurralde Ordezkaritzak bigarren komuna duten etxebizitza egokituei buruz egindako kontsultari dagokionez. Ponderatu beharreko irizpideak bateratzea.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak laburbildu du Arabako Lurralde Ordezkaritzak bigarren komuna duten etxebizitza egokituei buruz egindako kontsulta.

ERABAKIA: Arabako Lurralde Ordezkaritzari Batzorde Iraunkorrek egokitzat jotzen duen erantzuna jakinaraztea, bigarren komuna duten etxebizitza egokituei dagokienez:

“Komun bakarra badago, dutxa eta bainuontzia izango ditu, komunontziaz eta konketaz gain, eta 1,80 m-ko biratze-erradioa izango du. Etxean bi komun badaude, aldiz, batean bainuontzia eta bestean dutxa jartzeko aukera izango da, erreserbaren esleipendunak horrela erabakitzen badu. Kasu horretan, komunitako batek erabat irisgarri behar du, eta bigarren komuna erabilgarri izatea komeni da, hau da, esleipendunak ez du eragozpenik eduki behar bertan garbiketa- eta mantentze-zereginak egiteko. Araudi-arrazoiak direla-eta, etxebizitza esleitzerakoan esleipenduna zein den ez badakigu, dutxa duen komunak erabat irisgarria beharko du.

Horri dagokionez, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek adierazi nahi du, aholku tekniko gisa, bigarren komunak 1,40 m-ko biratze-erradioa izateak aukera emango diola esleipendunari aldez aurretik aipatutako mantentze- eta garbiketa-zereginak behar bezala betetzeko”.

Laugarren puntua: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak irisgarritasuna sustatzeko emandako laguntzei buruzko informazioa, 2005-2006 deialdiaren arabera (103. EHAA, 2005eko ekainaren 2koa).

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak jakinarazi duenez, 2005eko abenduaren 30eko EHAA n argitaratu den Etxebizitza sailburuordearen Ebazpenaren arabera, hainbat diru-laguntza jarri dira Udalen, herri-izaerako gainerako Toki Erakundeen eta irabazi asmorik gabeko eta onura publikoko Erakunde Pribatuen eskura, irisgarritasun-planak lantzeko, hobetzeko obrak burutzeko, eta hiriko ingurunearen eta eraikinen irisgarritasuna bermatzeko ekipamendua erosteko.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak adierazi du zer lehentasun hartu diren kontuan eskuragarri dauden laguntzak ematerakoan:

1. Irisgarritasun-planak egiteko eta dagoeneko egin diren irisgarritasun-planetan bildutako obretarako laguntzak lehenetsi dira.
2. Biztanle kopuruaren ponderazioa egin da, eskuragarri dauden partidak orekatzeko, eta, nolabait, Udal txikienek eta, ondorioz, baliabide gutxien dituztenek, laguntzak izan ditzaten errazteko.

Deialdi honetan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak 2.800.000 €-ko diru-laguntza eman du. Udal bakoitzak 2.500.00 € jaso ditu, eta irabazi asmorik gabeko eta onura publikoko erakunde bakoitzak, berriz, 270.000 €.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak EAeko Irisgarritasun Planei buruzko ikerlanaren ondorioak azaldu ditu —Kontseiluaren Aholkularitza Zerbitzuak egin du (Gai Zerrendaren zazpigarren puntua da)—, eta udalek irisgarritasun-planak zenbateraino bete dituzten jakinarazi du: une honetan, Autonomia Erkidegoko 250 udaletatik 117k irisgarritasun-planak dituzte, eta horrek esan nahi du udalen % 47k irisgarritasun-planak dituela, eta plan horiek EAeko herritarren % 81 hartzen dutela eraginpean.

ERABAKIA: Eusko Legebiltzarrari gomendio egokia egitea, Finantzen Euskal Kontseiluari jakinarazi diezaion hainbat diru-hornidura aintzat hartu beharra Ekarpenen bost urteko lege berria aztertzerakoan, hain zuzen ere EAEn irisgarritasun-arloan dauden beharrei heltzeko beharrezkoak diren diru-hornidurak.

Bosgarren puntua: Euskarazko testuen irisgarritasuna eta testuen katalogazio irisgarria: braille sistemara itzultzea.

Arartekoak eskatu du puntu hau Gai Zerrendan sartzea, itsu batek erakundeari egindako kexa baten ondorioz. Hala, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari jakinarazi zaio ezinduek euskarazko testuak eskuratzeko arazo handiak dituztela, testu egokirik ez dagoelako eta katalogatu gabe daudelako.

Arartekoak ikusi zuen gai horrek eskuragarri dauden fondoetara iristeko aukerarekin zerikusia zuela, eta, horrenbestez, gaia Kultura Sailaren Kultura Ondareko Zuzendaritzaren esku uztea erabaki zuen. Bileran, itsuentzako euskarazko liburuetara iristeko arazoari heldu zioten, honela heldu ere:

- a) poliki-poliki egokitu beharra, une honetan eskuragarri dauden fondoak handituz, eta
- b) fondo horiek sistematizatu beharra, fondoetara iristeko bide emango duten katalogoen bitartez.

Kultura Ondareko Zuzendaritzak konpromisoa hartu du planteatutako beharrari erantzuteko plan bat egiteko, eta, beharrezkoa bada, plan hori gauzatzea ahalbidetuko duen jarraipen-egutegia ezartzeko.

Horri dagokionez, Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzak informazioa eman du ONCErekin lankidetzak akordioa hitzartzeari begira izandako kontaktuei buruz. Arabako ONCEren Zuzendari Probintzialak eta ONCEren Errehabilitazio Teknikariak adierazi dute, halaber, lan-talde bat lanean ari dela euskarazko testuak —eta eskolarako apunteak— Braille sistemara egokitzeko.

Irisgarritasuna Komunikazioan irisgarritasunaren alorreko zeharkako jardun-ardatzetako bat da, eta, hortaz, gainerako eskumeneko esparruetan eragiten du.

Hala, ezinezkoa da komunikazioaren (euskaraz zein gaztelaniaz izan) irisgarritasuna beste hainbat esparrutatik bereiztea, hala nola hezkuntza, kultura, merkataritza, kontsumoa, osasuna, lana, industria, garraioa eta herri-lanak, eta Ogasuna.

Hori guztia aintzat hartuta, itsu batek Arartekoari aurkeztutako kexa, testu egokiturik eta testu-katalogaziorik ezean ezintasun hori dutenek euskarazko testuak eskuratzeko dituzten arazoei buruzkoa, Kultura eta Hezkuntza Alorren eskumen-esparruaren barruan kokatu beharra dagoela uste dugu; alabaina, argi eta garbi utzi

behar da aurrez aipatutako esparru guztietan ere erantzun egokia eman behar zaiola behar horri.

ERABAKIA: Arartekoari eztabaidaren garapenaren berri ematea.

Seigarren puntua: Espainiako Braille Batzordea, produktu bakoitzean bildutako braille testua zuzena ote den ziurtatzeko arduraduna.

Batzorde Iraunkorrari honako proposamen hau egin zaio: Komunikazioaren Irisgarritasunerako 68/2000 Dekretuaren IV. Eranskinaren 2.2.3. artikulua arau-aurreikuspenak (*“Seinaleztapen-sistema guztiak homologatzeko, Euskadiko Itsuen Erakunde Nazionalaren (ONCE) Lurralde Ordezkaritzak sistema horiek egokiak direla ebatzi beharko du, horretarako propio egingo duen txosten batean”*) eta Itsuen Erakunde Nazionalak (ONCE) xede horretarako artikulatutako barne-dinamika bateragarri egitea. Hala, ONCEk Espainiako Braille Batzordea izendatu duenez produktu bakoitzean bildutako braille produktua zuzena den edo ez ziurtatzearen ardura har dezan, nahikoa izan liteke, behin Batzorde horrek ziurtagiria eman ondoren, dokumentua Euskadiko Itsuen Erakunde Nazionalaren (ONCE) Lurralde Ordezkaritzari igortzea. Hala, Lurralde Ordezkaritzak, dokumentuari zigilua jarri ondoren, interesdunari igorriko lioke ziurtagiria.

Gure ustez, horrela Itsuen Erakunde Nazionalaren barne-instrukzioak 68/2000 Dekretuak xede horretarako ezarritako arau-aurreikuspenari egokitzen zaizkio, eta alderantziz.

ERABAKIA: Itsuen Erakunde Nazionalaren barne-instrukzioak 68/2000 Dekretuak xede horretarako ezarritako arau-aurreikuspenari egokitzeko proposamena ONCEri jakinaraztea.

Zazpigarren puntua: EAEko Irisgarritasun Planak. Aurrerapen eguneratua.

Gai Zerrendaren puntu horri Gai Zerrendaren laugarren puntuan heldu zaio, bi gaiak lotuta baitaude.

Zortzigarren puntua: 2005. urtean, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluan jasotako Salbuespenei buruzko informazioa.

2005. urtean jakinarazitako salbuespen kopurua aintzat hartuta, 2004. urtearen aldean % 26 igo da. 2002. urtean jakinarazitako salbuespenen aldean, 2005. urtean salbuespen kopurua bikoiztu da; alabaina, esan beharra dago 37 udalek bakarrik egin dutela bat dinamika horrekin.

Gainera, Batzorde Iraunkorrak balioetsi duenez, udalek jakinarazitako “salbuespenetako” asko ezin dira halakotzat jo. Izan ere, udalek jakinarazitako kasu askotan, erabilgarritasun-irizpideak aplikatu badira ere, zentzu hertsian ez dago esaterik betetzeko salbuespena gertatu denik, hau da, irisgarritasun- eta erabilgarritasun-irizpideen arabera egokitzea ezinezkoa denik, 68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren 3.3 artikulua zehaztutakoaren arabera. Nolanahi ere, “salbuespen”-kasu horiei buruzko datuak eskura izatea positibotzat jotzen da, berezko salbuespenei ez badagozkie ere, horrek nolabait ere irisgarritasun- eta erabilgarritasun-irizpideen aplikazioa ponderatzea ahalbidetzen baitu.

Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak urritzat jo du Udalek egindako ahalegina. Halaber, oso larritzat jo du arau-aurreikuspena bete ez izana, udalek emandako salbuespenak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari jakinarazteari dagokionez.

ERABAKIA: EAEko udal guztietako Idazkariei gutun bat idaztea, 68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren 3.3. artikulua arau-aurreikuspena nahitaez bete behar dela adierazteko.

Bederatzigarren puntua: 2005. urtean, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluan eta Laguntza Zerbitzuan jasotako Kontsultei buruzko informazioa.

Honako hauek nabarmentzen dira: 2005. urtean zerbitzuari egindako kontsulta kopuruaren igoera, EAEko Lehen Auzialdiko zenbait Epaitegik egindako kontsultak, sustapen libre eta/edo babestuetako etxebizitza egokituen desfekzioari buruz egindako kontsultak, eta Arartekoak eskatuta egindako esku-hartzeak.

Hamargarren puntua: Euskal Gorren lan-batzordeak egindako zereginei buruzko informazioa.

Gorren Elkartean Euskal Federazioaren ordezkariaren ustetan, gorrek edo entzuteko urritasuna dutenek ez dute beren beharretarako erantzun egokirik aurkitzen egungo arau-esparruan.

Orobat, ordezkatzeko duen taldearen lan-ildoak aurkeztu du, baita taldearen helburuaren berri eman ere: araudia zehatz-mehatz aztertzea, gorren edo entzuteko urritasuna dutenen arazoek zer konponbide izan ditzaketen balioesteko, 68/2000 Dekretuak aintzat hartzen dituen jardun-esparruetan. Arau-aurreikuspenik eza jotzen da gorrek edo entzuteko urritasuna dutenek aurre egin behar dieten arazoentzuz; izan ere, aurreikuspenik ezean, kolektiboaren beharrei erantzun eraginkorra ematea hirugarrenen esku geratzen da.

Hamaikagarren puntua: Galde-eskeak.

Garraio-arloko irisgarritasunari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Garraio Sailaren ordezkariak bertaratuei adierazi die bere Sailak EAEko garraio publikoaren —azpiegiturak barne— balioespen globala egin duela xede horri begira. Egindako katalogoa eta balioespen ekonomikoa Aldundi eta Udalei aurkeztu zaizkie, korporazio horien jardun-esparruei transferitutako eskumenak direlako. Egindako katalogoan atzemandako akatsak bildu dira, baita egin beharreko egokitzapenen kostuak ere.

Garraio-arloan gainerako arloetan ageri den egoera nabarmendu da: irisgarritasuna hobetzeko baliabide ekonomikoen urritasuna.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, Batzorde Iraunkorraren bilera amaitutzat jo da.

Jarraian, **HARTUTAKO ERABAKIAK** azaltzen dira:

1. ERABAKIA: Aurreko Batzorde Iraunkorraren (2004ko abenduaren 14a) akta onartzea.

2. ERABAKIA: Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzari Batzorde Iraunkorrek 68/2000 Dekretuan ezarritako arau-aurreikuspenak betetzeari eutsi nahi diola jakinaraztea, orain artean jarraitu zaion jardun-irizpideari eutsiz.

3. ERABAKIA: Arabako Lurralde Ordezkaritzari Batzorde Iraunkorrek egokitzat jotzen duen erantzuna jakinaraztea, bi komun dituzten etxebizitza egokituei dagokienez.

4. ERABAKIA: Eusko Legebiltzarrari gomendio egokia egitea, Finantzen Euskal Kontseiluari jakinarazi diezaion hainbat diru-hornidura aintzat hartu beharra Ekarpenen bost urteko lege berria aztertzerakoan, hain zuzen ere EAEn irisgarritasun-arloan dauden beharrei heltzeko beharrezkoak diren diru-hornidurak.

5. ERABAKIA: Arartekoari Batzordean euskarazko testuen irisgarritasunari buruz izandako eztabaidaren garapenaren berri ematea.

6. ERABAKIA: Itsuen Erakunde Nazionalaren barne-instrukzioak 68/2000 Dekretuak xede horretarako ezarritako arau-aurreikuspenari egokitzeko proposamena ONCeri jakinaraztea.

7. ERABAKIA: EAEko udal guztietako Idazkariei gutun bat idaztea, 68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren 3.3. artikulua arau-aurreikuspena nahitaez bete behar dela adierazteko.

3.- IRISGARRITASUN ARLOKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA


Irisgarritasun arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuak honako jarduera hauek garatzen ditu:

- Kotsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua.
- Irisgarritasuna Sustatzeko Batzorde Iraunkorarentzat eta Euskal Kontseiluarentzat laguntza teknikoak.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarentzat Laguntza Teknikoa.


3.1.- Kotsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua:

Jendeari arreta emateko Zerbitzua da, eta administrazio publikoek eta partikularrek irisgarritasunari buruz planteaturiko kotsulta guztiak (legediari dagozkionak, teknikoak eta laguntzei buruzkoak) jasotzen eta artatzen dira Zerbitzu horretan. 2005. urtean artaturiko kotsulten inguruko datuak laburbilduko ditugu jarraian.


2005eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte, Zerbitzuan jasotako eta erantzundako kotsultak, guztira, honako hauek izan dira: **279**. Batez beste, hilean 25 kotsulta izan ditu Zerbitzuak, eta irailean bildu da kotsulta gehien.



Kotsultak zein **Lurralde Historikotatik** egin diren zenbatzean, kotsulta gehienak Bizkaikoak dira (153); bigarren postuan Gipuzkoa dago (62), eta EAEko hiru probintzietatik kotsulta gutxien egin dituen lurraldea Araba da (37). Beste Autonomia Erkidegoetatik ere egin dira kotsulta gutxi batzuk.



Kontsulta gehienak pertsona juridiko pribatuek egin dituzte (% 48); jarraian pertsona fisikoek, partikularrek (% 29,4), eta, azkenik, pertsona juridiko publikoek; azken horiek Zerbitzuaren erabiltzaileen % 22,6 baino ez dira.




Pertsona juridiko publikoek egindako kontsulten barruan, Zerbitzua eskatzen duten udalen kopurua nabarmentzen da, kontsulten % 88 udaletatik egiten baita.

Erakunde pribatuei dagokienez, kontsulta gehien egin dituztenak arkitekturaren enpresak eta profesionalak izan dira (% 46); auzo-komunitateek, berriz, kontsulten % 30,2 egin dute.

Erakunde pribatuek egindako kontsulta guztien % 10,8 osatzen dute enpresek egindakoek; bestelako profesionalen kontsultek % 5,8 eta irabazi-asmorik gabeko erakundeenek % 7,2.

Artaturiko kontsultak gaiaren arabera zenbatuz gero, legediari buruzkoak % 60,3 izan dira, alderdi teknikoei buruzkoak % 26,9, eta diru-laguntzei buruzkoak % 7,9.

Kasu askotan, irisgarritasunaren arazoarekin lotura handia duten arau-kontzeptuak argitu behar izan ditugu. Gehien errepikatu den kasua honako hau izan da: Jabetza Horizontaleko Legetik eratorritako irisgarritasunari buruzko kontsultak (% 32,6).



Kontsulta askotan, Irisgarritasuna Sustatzeko Legeari buruzko galderekin batera, horrekin loturiko beste hainbat kontsulta ere (irtenbide teknikoen eskaerak, etab.) egin dira, gaiak nahastuta. Horrelako askotariko kontsultak egin dituztenak auzo-komunitateak izan dira, batik bat, eta kasu horietan, honako hauek azaldu behar izan dira: Irisgarritasuna Sustatzeko Legea, Jabetza Horizontalaren Legea eta laguntza teknikoak, baita kasuan kasu jaso zitzaketen diru-laguntzak ere. Kontsulta gehienak, ia denak, telefonoz ebatzi dira, eta kasu gutxitan jarri behar izan da hitzordua jendearekin (% 12).

3.2.- Irisgarritasuna Sustatzeko Batzorde Iraunkorarentzat eta Euskal Kontseiluarentzat laguntza teknikoa.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarentzat laguntza teknikoko Zerbitzuak garatu beharreko beste jarduera bat honako hau da: Batzorde Iraunkorari, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari eta sailari berari laguntza teknikoa ematea. Ildo horretatik, honako ekintza hauek egin ditugu:

- 1.- Etxebizitza Sailarentzako txostena, Lasarten BOE sustapen batean gordetako etxebizitza baten esleipendunak eskatutako egokitzapenak bidezkoak diren edo ez zehazteari buruzkoa.
- 2.- Etxebizitza Sailarentzako txostena, Altzan (Donostia) BOE sustapen batean gordetako etxebizitza baten esleipendunek eskatutako egokitzapenak bidezkoak diren edo ez zehazteari buruzkoa.
- 3.- Etxebizitza Sailarentzako txostena, Mundakan BOE sustapen batean gordetako hiru etxebizitzaren esleipendunek eskatutako egokitzapenak bidezkoak diren edo ez zehazteari buruzkoa.
- 4.- Etxebizitza Sailarentzako ikerlana, Portugaleteko Ruperto Medina Herri Ikastetxera iristeko arrapalaren egokitasunari buruzkoa.
- 5.- Etxebizitza Sailarentzako txostena, Luis Petralanda kaleko 2.erako (Basauri) obra-lizentzia bat emateari buruzkoa.
- 6.- Etxebizitza Sailarentzako txostenak, Elgoibarko azoka txikia koka daitekeen tokiak irisgarritasunaren ikuspegitik egokiak diren zehazteari buruzkoa.
- 7.- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarentzako txostena, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean aurreikusitako Zehatzeko Araubidea aplikatzeari buruzkoa.
- 8.- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarentzako txostena, oinezkoen pasabideetarako zoladura-alternatibak balioesteari buruzkoa.

3.3.- 2005. urtean osaturiko edo osatze-prozesuan dauden udaletako Irisgarritasun Planei buruzko txostena

Udaletako Irisgarritasun Planak osatze-lanak zertan dauden jakite aldera, 2005. urtean osaturiko Planei buruzko txostena egin zen. Irisgarritasun arloko Laguntza Zerbitzuak jasotako informazioan oinarrituriko datuak bildu ziren, eta beraz, informazioa egiaztatua dago.

Euskadiko Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen II. idazpuruaren 13. artikuluan honako hau xedatzen da: administrazio publikoek lau urteko planak egin beharko dituzte irisgarritasunaren arloan, eta plan horietan katalogo bat barne hartu beharko da, legean ezarritako irisgarritasun-baldintzen arabera egokitu beharreko erabilera publikoko eraikin eta kanpoko gune guztiekin; ezarri beharreko neurri zuzentzaileak ere barne hartu beharko dituzte, baita neurri horiek gauzatzeko urteko aurrekontu erabilgarria ere.

Bestalde, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren **2005eko maiatzaren 25eko AGINDUA** dago, irisgarritasun-planak egiteko, eta hobekuntza-obra burutzeko eta hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko ekipamenduak erosteko Udalei, herri-izaerako gainerako Toki Erakundeei eta irabazi-asmorik gabeko eta onura publikoko erakunde pribatuei diru-laguntzak ematea arautzen duena eta diru-laguntzak jasotzeko eskaera aurkezteko epea eta lekua zehazten dituena.

Euskadiko Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea 1998ko apirilean hasi zen indarrean, baina irisgarritasun-baldintzak arautzen zituen dekretua onartu gabe zegoenez, Irisgarritasun Planek ez zuten betetzen Legean ezarritako helburua.


2000. urteko ekainaren 12an, 110. EHAAn **68/2000 Dekretua** argitaratu zen; hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen, eta informazio eta komunikazioko sistemen **irisgarritasun-baldintzei buruzkoa da 68/2000 Dekretu hori**, eta 2000ko abenduaren 12an hasi zen indarrean; beraz, 20/1997 Legearen 13. artikuluan ezarritako Irisgarritasun Planen edukia zehazten zuen habeas-a bazegoen lehenagotik.

Jarraian, txosten bat aurkeztuko dugu, 2005. urtean osaturiko edo osatze-prozesuan dauden Irisgarritasun Planen zerrendaren azterketako datu nabarmenenak laburbiltzen dituena.

Lurraldea	Udalerrria	Finantziak
Bizkaia	ARRANKUADIAGA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	ARRIETA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	BERANGO	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	IURRETA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	GERNIKA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	LOIU	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Gipuzkoa	ALBIZTUR	Udala bakarrik
Gipuzkoa	ARETXABALETA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Gipuzkoa	ZARAUTZ	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*

2005. urtean Irisgarritasun Planak egin dituzten Udalerrriak

Lurraldea	Udalerrri kop.	Plana badutenak		2005ean plana egin dutenak	
ARABA	51	17	% 33,33	-	-
BIZKAIA	111	50	% 45,04	6	% 12
GIPUZKOA	88	53	% 54,55	3	% 5,6
EAE GUZTIRA	250	120	% 48,00	9	% 7,5



4.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUARI PROPOSATURIKO GAIEN LABURPENA

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluan kontsultak jaso eta erantzun egiten dira, araudiaren aplikazioaren inguruan, salbuespenen komunikazioaren inguruan eta abar. Segidan, gai horien laburpena azalduko dugu.

4.1.- Txosten-eskaerak eta Kontsultak

2005. urtean, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari zuzenean bidalitako hainbat txosten-eskaera jaso ditugu irisgarritasunarekin zerikusia duten gaiei buruz; halaber, zenbait kontsulta izan ditugu, orain arte, guztira, **hogeita hamaika (31) espediente** osatuta.

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia	Erantzuna
01.05 ACC	ONCE	Araba	Zebra-bideak zolatzea.	Txosten bat egiten da, horri buruzko alternatiba guztiak balioetsiz.
02.05 ACC	Arkitektoa	Gipuzkoa	68/2000 Dekretuaren III. Eranskinaren 10.2.2.1-1. artikulua edukiaren testua eta irudikapen grafikoa ez datoz bat.	Lege-testuaren hitzez hitzeko edukia lehenetsi behar da: 1,80 m-ko espazio libre horizontala atearen bi aldeetan.

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia	Erantzuna
03.05 ACC	Udala	Bizkaia	“Teilatupeko solairuko ostatu-etxearen” proiektuan eskatu beharreko irisgarritasuna.	Ostatu-etxeak irisgarria behar du barnealdean eta sarbideetan.
04.05 ACC	Partikularra	Bizkaia	Obra-lizentzia eta/edo irekitzeko lizentzia eskatzean aplikatu beharreko irizpideak.	68/2000 Dekretuaren V. Eranskina eta Udal Ordenantzak.
05.05 ACC	Partikularra	Araba	Kanpoko sarrera-ateen neurria.	68/2000 Dekretua. II. Eranskina, 4.1.1. artikulua, 3. idatz-zatia: gutxienez, igarotzeko zuloaren zabalerak 0,90 m izango du.
06.05 ACC	Neinor	Bizkaia	Familia bakarreko etxebizitzaren kontzeptua.	Kanpoaldetik sarrera independentea (indibidualizatu) dutenak, urbanizazioa edo bide publiko zein pribatua izan, baina eraikinaren barnean hartua ez dagoena.
07.05 ACC	Foru Aldundia.	Araba	Hirugarren adinekoen egoitza eta etxebizitza komunitarioetan aplikatzeko irizpideak.	Irisgarritasuna bermatu behar da, lokalaren eta kanpoaldearen arteko komunikazio bertikalean eta eraikinaren barnean.
08.05 ACC	Udala	Bizkaia	Igogailuen kabinaren neurriak	Honako honetan informatzen da: 68/2000 Dekretuaren III Eranskina, 5.3.4.2. artikulua.
09.05 ACC	Herritarren plataforma	Gipuzkoa	Kokaleku baten irisgarritasun-baldintzei buruzko balioespena eskatzen dute.	Txostena eman da.
10.05 ACC	Etxebizitza Sailaren Lurralde Ordezkaritza	Gipuzkoa	Gordetako etxebizitzak egokitze irizpideak.	Jarraitzen ari diren arau-aurreikuspenei eta funtzionamendu-arauei buruzko informazioa ematen da.
11.05 ACC	Partikularra	Bizkaia	Gimnasioa berritzeko jardunbideak.	68/2000 Dekretuaren V. Eranskinaren 2. artikulua, III. Eranskinari lotuta.
12.05 ACC	Partikularra	Araba	Lantokiko arrapalaren eta komun baldintzak.	Prozedura aztertu eta horri buruzko informazioa ematen da (lan-arriskuak)
13.05 ACC	Partikularra	Bizkaia	Etxebizitza entzuteko ezintasuna duen batentzat egokitzea.	III. eranskinaren 2. puntuaren 10.2.3. artikulua. Ateko txirrinaz oharazteko edo bideo-atezaineko sistema jartzea ahalbidetuko duen zirkuitu elektrikoa jartzeko beharrezko kanalizazioak.
14.05.ACC	Elkartu	Gipuzkoa	BOE etxebizitza gurpil-aulkien bi erabiltzailerentzat egokitzearen kostua	Txostena eman da.

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia	Erantzuna
15.05.ACC	Udala	Gipuzkoa	Oinezkoen sarbidea hobetzea	Txostena eman da
16.05 ACC	Udala	Bizkaia	Sustapen libreko zein sustapen publikoko etxebizitza gordeen izaera galtzea deklaratzeko prozedura	Sustapen guztietan etxebizitza egokituak gordetzerakoan jarraitu beharreko prozeduraren berri ematen da (6/2002 Instrukzioa etxebizitza babestuetan eta operatiboa sustapen librean).
17.05 ACC	Udala	Gipuzkoa	Auzo-komunitate batean igogailua jartzeko eskaera.	Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren V. Eranskinaren 2.4. artikuluari buruzko informazioa eman da, 2.5. artikuluari lotuta.
18.05.ACC	Lehen Auzialdiko Epaitegia	Bizkaia	1998. urtearen aurretik eraikinen irisgarritasunaren arloan aplikatzen zen araudiari buruzko informazioa, etxebizitzetara sartzeko arrapaletan baimendutako gehienezko ehunekoaren adierazpen zehatzarekin.	Txostena eman da.
19.05 ACC	Partikularra	Bizkaia	Hiri-inguruei, espazio publikoei, eraikinei eta informazio- eta komunikazio- sistemei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren V. Eranskinaren interpretazioari buruzko informazioa.	Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren Eranskinaren 2. artikulua 2.1. idatz-zatiari buruzko informazioa eman da, definizio zehatz hori ez dagoen kasuetarako.
20.05 ACC	Udala	Bizkaia	Abenduaren 20/97 Legearen 4. artikuluari buruzko aholkua, ikastetxe bat zabaldu behar den kasuetarako.	Eraikinen irisgarritasunerako Baldintza Teknikoei buruzko III. Eranskinean (apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua) bildutako araei buruzko informazioa eman da.
21.05 ACC	Partikularra	Bizkaia	Abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 4.2. artikuluari buruzko gomendioa, nekazaritza-turismoko obrei dagokienez.	20/1997 Legearen 17. artikuluan bildutako araberako informazioa eman da.
22.05 ACC	Elkartu	Gipuzkoa	Salmenta libreko etxebizitza baten aurrekontuaren balioespena eskatzen du.	Txostena eman da
23.05 ACC	Medikuen Elkargo ofiziala	Bizkaia	68/2000 Dekretuaren V. Eranskinaren aplikazioari buruzko aholkua (Osasun Zentroa – Kontsulta Pribatuak).	Apirilaren 11ko 68/200 Dekretuaren V. Eranskinaren 2.2. artikuluari buruzko informazioa eman zaio.

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia	Erantzuna
24.05 ACC	Udala	Bizkaia	Ikastetxe bat zabaltzea	Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 4.4. artikuluari buruzko informazioa eman zaio.
25.05 ACC	Udala	Bizkaia	Eraikin bat berritzeari buruzko informazioa.	Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren V. Eranskinaren 2.4. artikuluari buruzko informazioa eman zaio. Horren arabera, irisgarritasun-baldintzei buruzko Arau Teknikoak onartu dira.
26.05 ACC	Partikularra	Bizkaia	Bizitegi-eraikin pribatu batean, lokala berritzeko eta etxebizitza bihurtzeko obretan irisgarritasun-baldintzak betetzea.	Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren aplikazioari buruzko informazioa eman da. Horren arabera, irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartu dira.
27.05 ACC	Lehen Auzialdiko Epaitegia	Bizkaia	Txostena eskatzen du, jatetxeko komunak irisgarritasun-legeari eta 68/2000 Dekretuari egokitu behar zaizkion jakiteko, igogailu bat jartzeak eragiten baitio.	Txostena eman da
28.05 ACC	Lehen Auzialdiko Epaitegia	Bizkaia	Komunitate batean igogailua jartzeari buruzko txostena eskatzen du.	Txostena eman da
29.05 ACC	Udala	Gipuzkoa	Ebakuazioko bide eta irteeren aplikazioa.	Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak eta lege horren 15. eta 17. artikuluek ezarritako baldintzei buruzko informazioa eman da.
30.05 ACC	Ararteko	Bizkaia	Euskal Zerbitzuak Ikastetxeko arrapalaren irisgarritasuna balioetsi dezan eskatzen du.	Txostena eman da
31.05 ACC	Abokatua	Gipuzkoa	Araudia eta irisgarritasuna aplikatzea, etxebizitzetara bideratu behar den lokal batean obrak gauzatzekoan.	Berritze-obretan, eta urbanizazio eta eraikinak zabaltzeko edo aldatzeko obretan aplikatu beharreko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren V. Eranskinaren 2.4. artikuluari buruzko informazioa eman da.

Zerbitzuak artaturiko kontsulta guztiak oro har aztertu ondoren, honako ondorio hauek nabari dira:

1. 68/2000 Dekretuaren V. Eranskina (berritze-obrak, eta urbanizazio eta eraikinak zabaldu edo aldatzea). aplikatzearekin zerikusia duten kontsulten maiztasuna.
2. Geroz eta gehiago dira telefono-laguntzako zerbitzua (900 linea) erabiltzen dutenen kopurua. Berehalako arretak oso balioespen ona jasotzen du erabiltzaileen aldetik; izan ere, erantzuten da, eta, gainera, erabiltzaileak erantzuna behar duen unean egiten da. Hain zuzen ere, zerbitzu hori erabiltzen dutenak harrিতa azaldu ohi dira zerbitzuaren azkartasuna dela-eta.
3. Jabeen Komunitateek eta Irisgarritasunak aurkariak izateari eusten diote, gai horiei buruzko kontsulta ugariak adierazten duten bezala.
4. Aurten nabarmentzekoa da gordetako etxebizitzaren desafekzio-prozedurekin zerikusia duten kontsulten maiztasuna; profesionalek, teknikoek eta partikularrek dute prozedura horien ardura.

Nabarmentzekoa da, halaber, gero eta kontsulta gehiago egiten direla irisgarritasunari buruzko araudian aurreikusitakora egokitze nola jardun behar den jakiteko; ez dira kexak, beraz, ezta dagoeneko sortu den gatazka bati erantzuteko aukerak, behar bezala jarduteko argibide-eskaerak baizik.

4.2.- Salbuespenak jakinaraztea

68/2000 Dekretuaren V. eranskineko (Urbanizazio eta Eraikinak berritzeko, zabaltzeko edo aldatzeko obrak) 3.3. puntuari jarraiki, 2005. urtean, gaur arte, irisgarritasun-araudia aplikatzerakoan salbuespena ezarri zaien **131 espediente** helarazi zaizkio Kontseiluari. Salbuespena aplikatu dutela Kontseiluari jakinarazi dioten Udalak honako hauek dira:

Erregistroa.	Udala	Arrazoia
01.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Ibarra kaleko 10.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, ez delako posible kabina handiagorik sortzea ebakuazio-baldintzak urritu gabe.
02.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Errekatxu kaleko 13.eko igogailuaren ibilbidea aldatzea, igogailua ordeztzea eta ataria berritzea. Betetzeko salbuespena eman da, egiturazko eta formako arrazoiak direla-eta; izan ere, ezinezkoa da hiru eskailera-maila kentzea, soto-hormaren goialdeko uztaiburua baitago.
03.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Igogailua jartzea eta fatxada nagusia konpontzea, Juan Sebastian Elkano kaleko 3.ean. Salbuespena eman dute eskailerako eta atariko eskailera-buruek galarazten dutelako igogailuaren neurriak egokitzea.
04.05 EXE/CVPA	Iurreta	Zubiarre kaleko 12.ean igogailua jartzea. Lizentzia eman dutela jakinarazi digute. Antza, ez dute salbuespenik eman. SALBUESPENIK EZ.
05.05 EXE/CVPA	Portugalete	Castaños Jenerala kaleko 41.ean igogailua jartzea. Obrak egiteko udal-lizentzia eman dutela jakinarazi digute, baina ez digute jakinarazi salbuespena eman dutenik, eta, gainera, ez digute obra-proiekturik ekarri.
06.05 EXE/CVPA	Lasarte-Oria	Oztaran Plazako 4.ean igogailua jartzea, eraikinaren kanpoaldetik. Salbuespena eman dute; igogailuko kabinak, gehienez, 1,10 x 1,40 izango ditu, eta geldialdiak eskailera-buruan egiteko aukera izango da, etxebizitzetara sartzeko mailara iritsi gabe. Eskailera-igogailuak jartzeak gastu handia ekarriko luke, 14 auzoren artean ordaindu ezinezkoa.
07.05 EXE/CVPA	Errenteria	Miguel Alduntzin kaleko 18.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, egiturazko eta espazioen eskuragarritasunarekin zerikusia duten gorabeherak direla-eta. Igogailua kanpoaldean kokatzen da, eskaileraren aurrean; ataritik sartzen da igogailuan, lehen eskailera tartea igo ondoren, eta gainerako geldialdiak bitarteko eskailera-buruetan egiten dira, etxebizitza-solairuen arteko altuera-erdian.
08.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Karranzairu kaleko 10.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute ez delako posible igogailuaren kabinaren neurriak egokitzea, eskaileraren zabalerak galarazten baitu. Egiturazko gorabeherak eragindako salbuespena.

Erregistroa.	Udala	Arrazoia
09.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Dolores Ibarruri kaleko 36.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute ez delako posible igogailuaren neurriak egokitzea eta kabina handiagoa sortzea eskaileraren ebakuazio-baldintzak urritu gabe, eskaileraren zabalera dela-eta.
10.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Zorrilla kaleko 16.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, eskaileraren konfigurazioa dela-eta igogailuaren kabinaren neurriak ezin direlako egokitu.
11.05 EXE/CVPA	Oñati	J. Moiua kaleko 10.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute atearen neurriei dagokienez, bestelako konponbideak bideraezinak direlako.
12.05 EXE/CVPA	Amorebieta-Etxano	Larrabide kaleko 4.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren eta igarotzeko zabalera librearen neurriei dagokienez, araudiak ezarritako gutxieneko irizpideak bete ezin direlako.
13.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Bakea kaleko 46.eko taberna berritzeko obrak. Salbuespena eman dute, egiturazko gorabeherak direla-eta (habe bat dago) ezinezkoa delako lokalera sartzeko arrapala egitea.
14.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Teixidor kaleko 13.eko lokala ile-apaindegia jartzeko egokitzea. Salbuespena eman dute, egiturazko arrazoiak direla-eta lokalera sartzeko arrapala egin ezin daitekeelako; zehazkiago, beheko solairuko forjatuaren perimetro osoan ertzeko habe bat dagoelako. Gainera, lokaletako komunaren neurriak ezin dira irisgarri bihurtu, oinaren azalera erabilgarriaren % 10etik gora hartzen dutenez neurritz kanpokotzat jo baitira.
15.05 EXE/CVPA	Oñati	J. Moiua kaleko 12.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, igogailuaren kabinaren neurriak direla-eta (eskailera-kaxaren neurriak) igogailuaren kabinaren neurriak ezin direlako egokitu.
16.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Rubén Darío kaleko 6.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute kabinaren neurriei dagokienez; izan ere, bestela eskaileraren ebakuazio-baldintzak urrituko lirateke, eskailerak zenbateko zabalera duen kontuan hartuta.
17.05 EXE/CVPA	Aretxabaleta	Herriko Plazako 5-7 bitarteko behealdean gozokiak saltzeko denda irekitzeko lizentzia. Obrarik ez da egingo, lokalaren kontserbazio-egoera eta baldintzak egokiak direlako jarduera berriari begira. Horregatik, irekitzeko lizentzia eman dutela jakinarazi dute.
18.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Juan de Mena kaleko 3.ean igogailua jartzeko obrak gauzatzeko lizentzia. Salbuespena eman dute ez delako posible igogailuaren neurriak egokitzea eskaileraren ebakuazio-baldintzak urritu gabe, eskaileraren zabalera aintzat hartuta.
19.05 EXE/CVPA	Tolosa	Korreo kaleko 58.ean igogailua jartzeko lizentzia. Salbuespena eman dute, eskaileraren eta atariaren formaren eta neurrien ezaugarriak direla-eta barne-dimentsio handiagoko igogailu bat jarri ezin daitekeelako; horrek eskailera murriztea ekarriko luke, eta horrela suteen aurkako araudia ez litzateke beteko.

Erregistroa.	Udala	Arrazioa
20.05 EXE/CVPA	Tolosa	Korreo kaleko 44.ean igogailua jartzeko lizentzia. Salbuespena eman dute, eskaileraren eta atariaren forma-ezaugarriak eta neurriak direla-eta barne-dimentsio handiagoko igogailu bat jarri ezin daitekeelako; horrek eskailera murriztea ekarriko luke, eta horrela suteen aurkako araudia ez litzateke beteko.
21.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Ibaizabal kaleko 3.eko taberna berritzeko obra-lizentzia. Salbuespena eman dute, "beheko solairuko forjatuaren perimetro osoan erzeko habe bat dagoenez lokalera sartzeko arrapala jarri ezin daitekeelako", eta komunak irisgarri egiteko beharrezko tokiak lokalaren azaleraren % 10 gainditzen duelako (HAPNaren 5.01.51. artikulua).
22.05 EXE/CVPA	Errenteria	Lartzabal auzoko 7.ean kokatutako tabernaren titulartasun-aldaketa. Salbuespena eman dute komunen zerbitzuari dagokionez; izan ere, lokalaren neurriak aintzat hartuta (24 m ²), obrak egiteak lokala behin betiko ixtea ekarriko luke.
23.05 EXE/CVPA	Portugalete	Bailen kaleko 9an igogailua jartzeko obrak gauzatzeko lizentzia eman dutela jakinarazi dute.
24.05 EXE/CVPA	Portugalete	Vicente Durañona kaleko 1.ean ataria eta igogailua berritzeko obrak gauzatzeko lizentzia eman dutela jakinarazi dute.
25.05 EXE/CVPA	Portugalete	Luis Fernández Gómez kaleko 8an igogailua jartzeko obrak gauzatzeko lizentzia eman dutela jakinarazi dute.
26.05 EXE/CVPA	Lasarte-Oria	Geltoki kaleko 13.ean igogailua jartzea. Erabilgarritasun-irizpideak ezarri dituzte, kabinaren neurriei dagokienez aurreikusitakoa bete ezin daitekeelako, eta igogailuak eskaileraren bitarteko eskailera-buruan gelditu behar duelako. Komunitateak eskailera-igogailua jartzea erabaki du beharrezkoa izango denerako, eta Udalak oniritzia eman du.
27.05 EXE/CVPA	Lasarte-Oria	Blas de Lezo kaleko 2.ean igogailua jartzea, eraikinaren kanpoaldetik. Ezinezkoa da kabinaren neurriei dagokienez aurreikusitakoa betetzea, eta igogailuak eskaileraren bitarteko eskailera-buruan gelditu behar du. Komunitateak eskailera-igogailua jartzea erabaki du beharrezkoa izango denerako, eta Udalak oniritzia eman du.
28.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Bizkaia kaleko 6.ean igogailua jartzeko lizentzia. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriei dagokienez. Izan ere, igogailua ezin da handiagoa izan eskaileraren ebakuazio-baldintzak urritu gabe, eskaileraren neurriak aintzat hartuta.
29.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Gabriel Aresti kaleko 5.ean igogailua jartzeko lizentzia. Salbuespena eman dute eskaileraren kabinaren neurriei dagokienez; izan ere, eskaileraren neurriak aintzat hartuta, ebakuazio-baldintzak urrituko lirateke.
30.05 EXE/CVPA	Durango	Herriko Gudarien kaleko 10.eko behealdean kokatutako lokala egokitze obren lizentzia (podologia-kontsultarako eta ortopedia- eta parafarmazia-gaiak saltzeko establezimendua jarri behar dute). Salbuespena eman dute lokalerako sarbideei dagokienez, lokalaren egiturazko ezaugarriak aintzat hartuta, eta erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dira lokaleko barne-arrapaletan, gastua neurritz kanpokoa delako.

Erregistroa.	Udala	Arrazoia
31.05 EXE/CVPA	Portugalete	Angel Txopitea kaleko 6.ean igogailua jartzea. Obrak gauzatzeko udal-lizentzia eman dutela jakinarazi digute, baina ez digute jakinarazi salbuespena eman dutenik, eta, gainera, ez digute obra-proiekturik ekarri.
32.05 EXE/CVPA	Portugalete	Buenavista kaleko 5.ean igogailua jartzea. Obrak gauzatzeko udal-lizentzia eman dutela jakinarazi digute, baina ez digute jakinarazi salbuespena eman dutenik, eta, gainera, ez digute obra-proiekturik ekarri.
33.05 EXE/CVPA	Portugalete	Poeta Díez Gabiño kaleko 7.ean igogailua jartzea. Obrak egiteko udal-lizentzia eman dutela jakinarazi digute, baina ez digute jakinarazi salbuespena eman dutenik, eta, gainera, ez digute obra-proiekturik ekarri.
34.05 EXE/CVPA	Portugalete	Errepelegako anbulatorioko igogailua birmoldatzea. Obrak gauzatzeko udal-lizentzia eman dutela jakinarazi digute, baina ez digute jakinarazi salbuespena eman dutenik, eta, gainera, ez digute obra-proiekturik ekarri.
35.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Castor Andetxaga kaleko 1.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, igogailuko kabinaren neurriei dagokienez, bestela eskaileraren ebakuazio-baldintzak urrituko lirakeelako, eskaileraren neurriak aintzat hartuta.
36.05 EXE/CVPA	Salvatierra/ Agurain	Apategi kaleko 5.ean igogailua jartzeko lizentzia. Lizentzia eman dutela jakinarazi dute, besterik gabe.
37.05 EXE/CVPA	Arrieta	Berria Arearen AA-18aren xehetasun-azterketa. Salbuespena eman dute, udalerriko erdigunearen orografia dela-eta; herriaren erdigunea, plaza, eta garatu beharreko lurzoru-unitateak lotzeko, % 6ko malda gainditzen duten bideak ezarri behar dira.
38.05 EXE/CVPA	Zarautz	Hotela zabaltzeko obrak. Salbuespena eman diote, pasabidearen zabalera 100 cm-tik 110 cm-ra handitzeko obrek neurritz kanpoko gastua ekarriko luketelako.
39.05 EXE/CVPA	Abanto/ Zierbena	Obra txikiak El Cal auzoko 28.eko apaindegian. Salbuespena eman dute, lokalerako sarrera ezin daitekeelako espaloia-aren kota berean ezarri, eraikinaren egituraren habe batek galarazten duelako.
40.05 EXE/CVPA	Donostia/San Sebastián	Idiakes kaleko 3.ean berritzeko eta igogailua aldatzeko obren lizentzia. Salbuespena eman dute, kabinaren neurriak aintzat hartuta.
41.05 EXE/CVPA	Durango	Komentukaleko 30.eko lokala berritzeko eta egokitze-ko obrak (ziberzentroa izango da). Salbuespena eman diote honako arrazoi honegatik: erabilgarritasun-irizpideei jarraituz arrapalan eta komunean egokitutako elementuek hartuko luketen azalera erabilera publikoko azalaren % 15 gaindituko luke.
42.05 EXE/CVPA	Barakaldo	San Juan kaleko 16.eko ile-apaindegia berritzeko obrak. Salbuespena eman dute lokalaren egiturazko gorabeherak direla-eta; ezinezkoa da lokalera sartzeko arrapala egitea, lokalaren azpian soto bat dagoenez forjatua jaisterik ez dagoelako.

Erregistroa.	Udala	Arrazoia
43.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Gabriel Aresti kaleko 8.ean igogailua jartzeko lizentzia. Salbuespena eman dute egiturazko arrazoiak direla-eta; izan ere, igogailuaren kabinaren neurriak ezin dira egokitu eskaileraren ebakuazio-baldintzak urritu gabe, eskaileraren neurriak aintzat hartuta.
44.05 EXE/CVPA	Getxo	Juan Bta. Zabala kaleko 1.ean gizonezkoen ile-apaindegia jartzeko obra- eta jarduera-lizentzia. Salbuespena eman dute honako arrazoi honengatik. % 8ko 46 cm-ko malda gainditzeko, 0,90eko zabalerako arrapala jarri beharko litzateke , eta horrek gutxi gorabehera lokalaren barruan 5,17 m2 okupatzea ekarriko luke, azalera osoaren % 28,6. Hortaz, egin nahi den jarduerarako nahikoa tokirik ez litzateke geldituko
45.05 EXE/CVPA	Durango	Mikeldi kaleko 4.eko behealdea berritu eta egokitzea (koltxoi-denda jarriko dute). Salbuespena eman dute lokalaren sarrerari dagokionez. Eskailera-maldari eustea erabaki da; izan ere, sartzeko arrapala egiteak forjatua haustea ekarriko luke berekin, eta kontuan hartu behar da forjatu horrek zenbait jabetza bereizten dituela.
46.05 EXE/CVPA	Santurtzi	Sta. Eulalia kaleko 4.ean igogailua jartzea. Erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dituzte, V. Eranskinean bildutako neurri guztiak hartu ezin daitezkeelako.
47.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Fco. Gómez kaleko 12.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, igogailuaren kabinaren neurriei, atarira sartzeko eskailerei eta igogailura sartzeko guneen neurriei dagokienez, egiturazko eta formako ezaugarriak direla-eta; zehazkiago, eskaileraren neurriengatik, eta eskaileraren trazatuaren azpian garaje batzuk daudelako.
48.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Bizkaia kaleko 35.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuko kabinaren neurriei (eskaileraren ebakuazio-baldintzak urrituko lirateke) eta atarira sartzeko arrapalari (atariaren konfigurazioak galarazten du) dagokienez.
49.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Herriko Plazako 10.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, igogailuko kabinaren neurriei dagokienez, bestela eskaileraren ebakuazio-baldintzak urrituko liratekeelako, eskaileraren neurriak aintzat hartuta.
50.05 EXE/CVPA	Zarautz	Salbuespena eman dute establezimendurako sarrerari dagokionez, industria-erabilerako gaiak erakusteko eta biltegitratzeko lokalean. Arantzadi Kalea 3., behea.
51.05 EXE/CVPA	Usurbil	Aginagako Errasti eraikinean igogailua jartzea. Salbuespena, zirkulazio-elementuen zabalerari dagokionez.
52.05 EXE/CVPA	Beasain	Zazpiturrieta kaleko 2.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute honako hauei dagokienez: sartzeko plataforma (eraikineko etxebizitzak aldatzea ekarriko luke, eta, ondorioz, neurritz kanpoko gastua), igogailura sartzeko gunea argizatzea (zerrenda seinaleztatzailea jartzeko tokirik ez dago), igogailuko kabinaren neurriak eta irekitzeko sistema (eskailerak ez du kabina handiagorik ahalbidetzen, eta kabinaren neurriek ez dute bestelako irekitze-sistematik jartzeko biderik ematen).

Erregistroa.	Udala	Arrazioa
53.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Aragoi kaleko 2.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, igogailuko kabinaren neurriei dagokienez, bestela eskaileraren ebakuazio-baldintzak urrituko lirakeelako, eskaileraren neurriak aintzat hartuta.
54.05 EXE/CVPA	Donostia/San Sebastián	Jasodura batean bost etxebizitza egiteko eta elementu komunak berritzeko obrak, Matia kaleko 38.ean. Salbuespena eman dute igogailuko kabinaren neurriei dagokienez; izan ere, igogailua eskailerako zuloaren barnean jarri behar da, eskailera-burua erabat murriztuz.
55.05 EXE/CVPA	Salvatierra/Agurain	San Juan Plazako 2.eko etxebizitza-erakina birgaitzeko lizentzia. Erabilgarritasun-irizpideak erabili dituzte: III. eranskineko 4.1.1. artikuluan eskatutako zirkulu libreak 1,40 eduki dezake, eta, igogailuko kabinetan, 1,2rainoko sakonera eta 0,90eko zabalera izan ditzake.
56.05 EXE/CVPA	Zarautz	Araba kaleko 12.eko beheko merkataritza-lokala aseguru-bulego bihurtzeko egokitzea. Salbuespena eman dute, bestela beheko solairuko lurzoru-forjatuaren egitura aldatu beharko litzatekeelako. Lokalerako sarrera arrapala baten bitartez egokitzen da, baina atearen kanpoaldeko espazio libre horizontala bazter utzita.
57.05 EXE/CVPA	Santurtzi	Jenaro Oraá kaleko 38.a. Kalearen kotan igogailua jartzeko obrak. Erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dira, eraikinaren ezaugarriek ez dutelako eskatutako neurri guztiak hartzeko biderik ematen.
58.05 EXE/CVPA	Santurtzi	Jose Gurrutxaga kaleko 6.ean igogailua jartzea. Eskatutako neurri guztiak hartu ezin daitezkeenez, erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dira.
59.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Castor Andetxaga kaleko 12.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, kabinaren eta patiora ematen duten leihoen arteko tartea dela-eta igogailuko kabinaren neurriak egokitu ezin daitezkeelako.
60.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Castor Andetxaga kaleko 10.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, kabinaren eta eraikinaren patiora ematen duten leihoen arteko tartea dela-eta igogailuko kabinaren neurriak egokitu ezin daitezkeelako.
61.05 EXE/CVPA	Barakaldo	San Bizente kaleko 18.ean motoak erakutsi, saldu eta mantentzeko lokala egokitzea. Salbuespena eman dute, lokala irisgarri egiteko neurriek neurritz kanpoko gastua dakartelako; gainera, ertzeko habe bat dago sotoko garajearen forjatuan, eta habe horrek sartzeko arrapala eraikitzea galarazten du.
62.05 EXE/CVPA	Beasain	San Inazio kaleko 5.eko kirol-denda. Salbuespena eman dute altzarien arteko pasabide nagusiei dagokienez, lokalaren neurriengatik, eta, ibilbide bakoitzaren amaieran, biratzeko beharrezko 1,80ko biribila egin daitekeelako. Salbuespena eman dute, halaber, negozioaren eremu pribatura sartzeko ateari dagokienez.

Erregistroa.	Udala	Arrazioa
63.05 EXE/CVPA	Beasain	Oriamendi kaleko 21.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute sartzeko plataformaren neurriei, sartzeko eremuaren zerranda seinaleztatzaileari eta igogailuko kabinari dagokienez, eraikinaren egiturazko ezaugarriak direla-eta. Izan ere, eraikineko eskailera neurritz kanpo aldatu beharko litzateke, ia-ia iraganezin bihurtzeko moduan, eta, gainera, horrek gehiegizko gastua ekarriko luke.
64.05 EXE/CVPA	Tolosa	Korreo kaleko 35.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute eskaileraren eta atariaren forma eta neurriak aintzat hartuta (igarotzeko zabalera librea atea irekin ondoren, kabinaren barne-neurriak eta abar).
65.05 EXE/CVPA	Beasain	Oriamendi kaleko 27.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute sartzeko plataformaren neurriei, sartzeko eremuaren zerranda seinaleztatzaileari eta igogailuko kabinari dagokienez (eskudelak eta atea), eraikinaren egiturazko ezaugarriak direla-eta. Izan ere, eraikineko eskailera neurritz kanpo aldatu beharko litzateke, ia-ia iraganezin bihurtzeko moduan, eta, gainera, horrek gehiegizko gastua ekarriko luke.
66.05 EXE/CVPA	Erresteria	Miguel de Alduntzin kaleko 5.ean igogailua jartzea. Lizentzia ematearen erabakiaren kopia erantsi dute.
67.05 EXE/CVPA	Getxo	Tamarindo kaleko 4.eko tabernarako obra-lizentzia. Salbuespena eman dute. Izan ere, tabernara sartzeko eskailera-mailaren 20 cm-ak kentzeak karga-habe bat haustea ekarriko luke, eta horrek eraikinaren egiturazko baldintza komunei eragingo lieke.
68.05 EXE/CVPA	Beasain	Obra- eta irekitze-lizentzia, San Inazio kaleko 5.ean aholkulari eta abokatuen bulegoa jartzeko. Salbuespena eman dute honako hauei dagokienez: barne-komunikazioak, beheko solairu irisgarrian ezintasuna duten pertsonak artatuko direlako; solairuartera sartzeko eskailera, erabilera partikularra izango duelako; komuneko atea barnealderantz irekitzea, batetik, komunaren neurriek, behin atea ireki ondoren, biratzeko beharrezko biribila egitea ahalbidetzen dutelako, eta, bestetik, kanpoalderantz irekitzeak suteen ebakuaziorako funtsezko bidea den eskaileraren igarotze-eremua okupatuko lukeelako.
69.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Letxezar kaleko 2.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, igogailuko kabinaren neurriei eta sartzeko guneari dagokienez, bestela eskaileraren ebakuazio-baldintzak urrituko liratekeelako, eskaileraren neurriak aintzat hartuta.
70.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Zaballa kaleko 10.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, kabinaren neurrietarako aurreikusitakoari dagokionez, eraikinaren egiturazko gorabeherak direla-eta.
71.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Salgeta kaleko 3.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, eskaileraren kaxako zuloaren ezaugarriak direla-eta igogailuko kabinaren neurriak egokitu ezin daitezkeelako.
72.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Colón kaleko 5.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, igogailuko kabinaren neurriak eskaileraren kaxako erdiko zuloan egokitu ezin daitezkeelako.

Erregistroa.	Udala	Arrazioa
73.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Arcipreste de Hita kaleko 2.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, kabinaren neurrietarako aurreikusitakoari dagokionez, eraikinaren egiturazko gorabeherak direla-eta.
74.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Askatasunaren Hiribideko 9.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, igogailuko kabinaren neurriak eskaileraren kaxako erdiko zuloan egokitu ezin daitezkeelako.
75.05 EXE/CVPA	Lekeitio	Buenavista Zapirain kaleko 2.ean (lonja) ile-apaindegia jartzeko lokala egokitzea. Salbuespena eman dute lokalera sartzeko eskailera-mailari dagokionez; izan ere, eraikinaren egiturak habe bat du puntu horretan, hormaren goialdean, eta, beheko solairuko forjatuak horma horri eusten dionez, ezin daiteke aldatu.
76.05 EXE/CVPA	Errenteria	Igantzi kaleko 23.ean igogailua jartzea. Obra-lizentzia eman dutela jakinarazi dute.
77.05 EXE/CVPA	Salvatierra/ Agurain	Kale Nagusiko 55.eko eraikina birgaitzea; bertan 3 etxebizitza eta 3 trasteleku ezarriko dira. Lizentzia eman dutela jakinarazi dute.
78.05 EXE/CVPA	Iurreta	Zubiaurre kaleko 3.eko eskailerako zuloan igogailua jartzea. Horretarako, eskaileraren laua urratuko da, laua hori gutxienez 90 cm-ko zabalerarekin uzteko.
79.05 EXE/CVPA	Valdegovia	Carancako kaleak zolatzea, eta elektrizitatea, argiteria publikoa eta telefonia kanalizatzea. Hegal batean kokatutako herri barrua da. Kaleen luzerako maldek % 8 gainditzen dute ibilbidearen zati batzuetan, eta malda horiek ezin daitezke murriztu, etxebizitzetarako sarrerak bertan baitaude.
80.05 EXE/CVPA	Usurbil	Zubiaurrenea kaleko 3.ean igogailua jartzea. Obra-lizentzia eman dutela jakinarazi dute.
81.05 EXE/CVPA	Santurtzi	Iparragirre kaleko 75 B-an igogailua jartzea. Erabilgarritasun-irizpideak ezarri dira egiturazko baldintzak direla-eta.
82.05 EXE/CVPA	Santurtzi	Julian Gayarre kaleko 28.ean igogailua jartzea. Erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dira, eta, lizentzia emateko, honako baldintza hau jarri da: ebakuazio-ibilbide osoan 90 cm-ko gutxienezko pasabideak egiaztatzeak akta sinatzea.
83.05 EXE/CVPA	Santurtzi	Pagazaurtundua kaleko 11.ean igogailua jartzea. Erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dira, 1,50eko pasabide librerik uzterik ez dagoelako. Proposamenak irisgarritasuna hobetu du, baina ez du etxebizitzetara sartzeko eskailerak kentzeko aukerarik eman.
84.05 EXE/CVPA	Abanto/ Zierbena	Sanfuentes auzoko 28.eko apaindegia. Obra txikiak (konpartimentazioa eta dekorazioa). Salbuespena eman dute, lokalerako sarbidea ezin daitezkeelako espaloien kotan ipini, puntu horretan eraikinaren egiturari dagokion habe bat baitago.
85.05 EXE/CVPA	Ordizia	Urdaneta kaleko 18.ean informatika-akademia jartzeko lizentzia ematea jakinarazi dute. Salbuespena ematea eragin duten arrazioak ez dituzte zehaztu.

Erregistroa.	Udala	Arrazoia
86.05 EXE/CVPA	Elgoibar	Pedro Muguruza kaleko 11.ean igogailua jartzea. Aldez aurreko egiturazko eta formako baldintzek salbuespena ematea justifikatu dute, kabinaren neurriei eta atarian sartzeko arrapalaren maldaren ehunekoari dagokienez.
87.05 EXE/CVPA	Elgoibar	San Frantzisko kaleko 49.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute kabinaren neurriei eta sartzeko ateen zabalerari dagokienez, eraikinaren ezaugarriak aintzat hartuta zail ikusten delako igogailuaren instalazioari bestelako konponbidea ematea.
88.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Castor Andetxaga kaleko 7.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute kabinaren neurriei dagokienez, eskailera-kaxaren erdiko zuloaren neurriak direla-eta.
89.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Corazón de María kaleko 2.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute kabinaren neurriei dagokienez, eskailera-kaxaren erdiko zuloaren neurriak direla-eta.
90.05 EXE/CVPA	Barakaldo	San Bizente kaleko 9.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute kabinaren neurriei dagokienez, eskailera-kaxaren erdiko zuloaren neurriak direla-eta.
91.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Corazón de María kaleko 4.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute kabinaren neurriak egokitu ezin daitezkeelako eskaileraren ebakuazio-baldintzak urritu gabe.
92.05 EXE/CVPA	Barakaldo	San Bizente kaleko 13.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute kabinaren neurriei dagokienez, bestela erdiko eskaileraren zuloak ez lukeelako igogailua jartzeko aukerarik emango, zuloaren neurriak aintzat hartuta.
93.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Foru Pasealekuko 14.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute kabinaren neurriak egokitu ezin daitezkeelako eskaileraren ebakuazio-baldintzak urritu gabe.
94.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Araba kaleko 4.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute kabinaren neurriei eta atarian arrapala jartzeari dagokienez, eskailera-kaxaren erdiko zuloaren eta atariaren neurriak direla-eta.
95.05 EXE/CVPA	Tolosa	Arostegieta kaleko 16.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute eraikinaren egiturazko eta formako ezaugarriek ez dutelako zenbait irisgarritasun-neurri gauzatzeko biderik ematen.
96.05 EXE/CVPA	Tolosa	Kondeko Aldapako 14.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute eraikinaren egiturazko eta formako ezaugarriak direla-eta (kabinaren neurriak, atea igartzeko zabalera eta abar).
97.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Etxatxu kaleko 37.ean igogailua jartzea, eta fatxada eta teilatua konpontzea. Salbuespena eman dute kabinaren neurriei dagokienez, eskaileraren erdiko zuloaren neurriak direla-eta.
98.05 EXE/CVPA	Zaldibar	Bekoetxe kaleko 2., 4. eta 6.eko BBKren lokala berritzea. Salbuespena eman dute sarreran proiektutako arrapala gauzatu ezin daitezkeelako; izan ere, eskailera-mailan elkartzeko dira, batetik, beheko solairuko eustorma, eta, bestetik, beheko solairuko lurzoruaren forjatua eta garaje-sotoko lurzoruaren estalkia.

Erregistroa.	Udala	Arrazoia
99.05 EXE/CVPA	Santurtzi	Las Viñas kaleko 25.ean igogailua jartzea. Erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dituzte, araudian aurreikusitako neurri guztiak errespetatu ezin daitezkeelako.
100.05 EXE/CVPA	Salvatierra/ Agurain	Apategi kaleko 7.ean igogailua jartzea. Obra-lizentzia eman dutela jakinarazi dute.
101.05 EXE/CVPA	Donostia	Aintzieta kaleko 15.ean igogailua jartzea. Egiturazko eta formako arrazoiak direla-eta erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dituzte solairuetan sartzeko plataformari eta kabinaren neurriei dagokienez (solairuko plataformari eusten zaio, eta zuloak kabinaren neurriak mugatzen ditu).
102.05 EXE/CVPA	Aretxabaleta	Durana kaleko 16.eko behean bazarra irekitzea. Salbuespena eman dute honako arrazoi honengatik: aldeztatik lokalean osasun-aparatuak saltzen ziren, eta, lokala egoera onean dagoenez, ez da inolako obrarik egingo. Dagoen eskailera-maila gainditzeko sarrera aldatzeak neurritz kanpoko gastua ekarriko luke.
103.05 EXE/CVPA	Beasain	Oriamendi kaleko 8.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute kabinaren, ateen eta sartzeko plataformaren neurriei dagokienez, eskailera-kaxaren neurriak eta eraikinaren egiturazko ezaugarriak aintzat hartuta.
104.05 EXE/CVPA	Beasain	Nafarroa Etorbideko 33.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute kabinaren, ateen eta sartzeko plataformaren neurriei dagokienez, eskailera-kaxaren neurriak eta eraikinaren egiturazko ezaugarriak aintzat hartuta.
105.05 EXE/CVPA	Beasain	Oriamendi kaleko 11.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute kabinaren, ateen eta sartzeko plataformaren neurriei dagokienez, eskailera-kaxaren neurriak eta eraikinaren egiturazko ezaugarriak aintzat hartuta.
106.05 EXE/CVPA	Santurtzi	Fleming Doktorea kaleko 3.ean igogailua jartzea. Obra-lizentzia eman dutela jakinarazi dute, salbuespenik eman duten edo ez zehaztu gabe.
107.05 EXE/CVPA	Zarautz	Gipuzkoa kaleko 17.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriei eta igogailuan sartzeko plataforman sartu beharreko diametro-zirkulari dagokienez, eraikinaren egiturazko eta tipologiako baldintzak direla-eta.
108.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Fleming kaleko 1.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriak egokitzeari dagokionez, patioaren neurriak aintzat hartuta.
109.05 EXE/CVPA	Beasain	Nafarroa Etorbideko 1.eko behean argazki-denda irekitzeko lizentzia. Altzarien arteko pasabide nagusiak ez dira 1,80ra iristen ibilbide guztietan, eta zenbait pasabide tartetan gauza bera gertatzen da. Nolanahi ere, mugigarritasuna ez da mugatzen, estuguneetako bi aldeetara, eta gehienez 5 metrora, 1,80 m-ko zirkulua sar daitekeen gunek baitaude.

Erregistroa.	Udala	Arrazoia
110.05 EXE/CVPA	Mundaka	Itxaropena kaleko 2.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabina eskailera-buruetan irekitzen delako, eskailera-buruetan maniobratzeko espazioak behar bezain zabalak ez direlako, eta atearen eta kabinaren arteko zabalera 1,20-raino handitzen delako. Atariaren eta eskaileraren antolamenduak garapen handiagoak egitea galarazten dute.
111.05 EXE/CVPA	Mundaka	Juan Bautista Longa kaleko 5.ean berritzeko eta zabaltzeko obrak. Igogailua eta atondoak jartzeak 1,50-eko zirkulu bat sartzeko adinako zabalera eskatzen du, eta, ondorioz, azalera erabilgarria nabarmen urritzea. Horri orubearen azalera eta triangelu-forma eransten badizkiogu, argi dago obra horiek etxebizitzaren bizigarritasuna kolokan jarriko luketela.
112.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Magallanes kaleko 5.eko ile-apaindegia berritzea. Salbuespena eman dute honako arrazoi honengatik: lokala irisgarri egiteko, atondo bat jarri beharko litzateke komunaren aurretik, eta horrek lokalaren azalaren %10etik gora hartuko lukeenez, neurritz kanpokotzat jotzen da.
113.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Askatasunaren Hiribideko 64ko lokala (kafetegia) egokitzeko obrak. Salbuespena eman dute honako arrazoi honengatik: lokala irisgarri egiteko, arrapala bat eraiki beharko litzateke, eta horrek lokalaren azalaren %10etik gora hartuko lukeenez, neurritz kanpokotzat jotzen da.
114.05 EXE/CVPA	Santurtzi	Virgen del Mar kaleko 18.ean igogailua jartzea. V. Eranskinean bildutako neurri guztiak hartu ezin daitezkeenez, erabilgarritasun-irizpideak aplikatzeko erabakia hartu da.
115.05 EXE/CVPA	Donostia/ San Sebastián	Bergara kaleko 2.ean arkitektura-oztopoak kentzeko obrak. Erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dira, eraikinaren egiturazko gorabeherak direla-eta irisgarritasun-irizpideak % 100ean betetzerik ez dagoelako.
116.05 EXE/CVPA	Donostia/ San Sebastián	Heriz Pasealekuko 6.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailu-kabinaren neurriei dagokienez, aparatua eskaileraren zuloan jartzen baita.
117.05 EXE/CVPA	Donostia/San Sebastián	Baztan kaleko 5.ean igogailua jartzea. Egiturazko eta formako ezaugarriak direla-eta erabilgarritasun-irizpideak aplikatuko dira solairuko sartzeko plataformari eta kabinari dagokienez, plataforma dagoeneko eraikia dagoelako eta eskaileraren zuloak ez duelako kabina handiagoa jartzeko biderik ematen.
118.05 EXE/CVPA	Donostia/San Sebastián	Koruko Andre Mariaren kaleko 6.ean igogailua jartzea. Egiturazko eta formako ezaugarriak direla-eta erabilgarritasun-irizpideak aplikatuko dira solairuko sartzeko plataformari eta kabinari dagokienez, plataforma dagoeneko eraikia dagoelako eta eskaileraren zuloak ez duelako kabina handiagoa jartzeko biderik ematen.
119.05 EXE/CVPA	Santurtzi	Maestro Calles kaleko 7.eko igogailua berritzea. Erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dituzte, egiturazko arazoak direla-eta irisgarritasun-irizpideak erabiltzeko modurik ez dagoelako. Ez dute bestelako xehetasunik ematen.

Erregistroa.	Udala	Arrazioa
120.05 EXE/CVPA	Donostia/San Sebastián	Jai Alai kaleko 3.ean igogailua jartzea. Egiturazko arrazoiak direla-eta salbuespena eman dute, igogailu-kabinaren neurriei eta igogailura sartzeko guneei dagokienez.
121.05 EXE/CVPA	Mundaka	Lorentena kaleko 5.eko eraikina eraisteko eta berreraikitzeke lizentzia. Eraikin berriaren irisgarritasuna oinplanoko azalera erabilgarriaren neurrien eraginpean dago. Batetik, atondoak eraiki behar dira, 1,50 m-ko zirkulua sartzeko modukoak, eta, bestetik, igogailua jarri behar da. Horrek guztiak oinplanoko azalera erabilgarria murriztuko luke, eta proiektutako etxebizitzaren bizigarritasuna kolokan jarri. 2005eko azaroaren 22an igorritako idazkian informazio gehiago jasotzeko eskaera egin dugu, hartara hartutako erabakia irizpide egokiari jarraituz balioesteko.
122.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Araba kaleko 3.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, igogailuaren neurriak ezin daitezkeelako egokitu eskaileraren ebakuazio-baldintzak urritu gabe, eskaileraren lauzak, eta eskaileraren, atariaren eta eskailera-buruaren neurriek ez dutelako horretarako biderik ematen.
123.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Landaburu kaleko 17.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, patioaren neurriak eta forma direla-eta igogailuaren neurriak eta forma egokitu ezin daitezkeelako.
124.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Arana kaleko 17.ean igogailua jartzeko, ataria eta eskailera-kaxa berritzeko, eta fatxada nagusia, patioko fatxada eta lurzorua konpontzeko lizentzia. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriei dagokienez.
125.05 EXE/CVPA	Portugalete	Abatxolo kaleko 5.ean igogailua jartzeko udal-lizentzia eman dutela jakinarazi dute.
126.05 EXE/CVPA	Portugalete	Korreo kaleko 6.ean igogailua jartzeko udal-lizentzia eman dutela jakinarazi dute.
127.05 EXE/CVPA	Portugalete	Poeta Diez Gaviño kaleko 5.ean igogailua jartzeko udal-lizentzia eman dutela jakinarazi dute.
128.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Foru Pasealekuko 12.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, igogailuaren kabinaren eta igogailura sartzeko guneen neurriak egokitu ezin daitezkeelako, eskailera-kaxaren neurriak aintzat hartuta.
129.05 EXE/CVPA	Iurreta	Bidebarrieta kaleko 15.eko atarian igogailua jartzea eta 3 eskailera-maila kentzea. Dagoen eraikinaren ezaugarriek galarazten dute igogailuaren irteeran 1,40 m-ko diametroko zirkulua sartzeko.

Erregistroa.	Udala	Arrazoia
130.05 EXE/CVPA	Donostia/San Sebastián	Miramar kaleko 2.eko beheko obra txikiko lizentzia (trenkada egitea eta komunak berritzea). Salaketa bat jarri dute, bide publikotik lokalerainoko irisgarritasun-baldintzak betetzen ez direlako. Salbuespena eman zaio, aurkeztutako alegazioak eta ekarritako konponbidea aintzat hartuta: lokalaren barneko eskailera-maila kenduko da, eta horrek ahalbidetuko du lokal osoa oro har maila berean egotea. Alabaina, lokalaren sarrerako eskailera kentzeak beheko solairuko forjatuaren egituraren eragingo luke, eta, gainera, eskailera-maila horren aurrealdeak arnasbide gisa jarduten du beste jabetza baten beheargoko solairuarentzat (sotoarentzat). Honako alternatiba hau aurkezten da: arrapala mugikor bat, kanpoko eskailera-maila gainditzea ahalbidetuko duena.
131.05 EXE/CVPA	Donostia/San Sebastián	Prim kaleko 53.eko lokala egokitzea, antigoaleko gauzen denda jartzeko. Erabilgarritasun-irizpideak erabili dira; izan ere, lokalaren forma aintzat hartuta (barne-espazioa oso mugatua da), lokalera sartzeko arrapalarik ezin da jarri, eta eskailera-igogailu bat jartzeak neurriz kanpoko gastua ekarriko luke (7.500,00 €, gutxi gorabehera), 20,00 m ² -tan aplikatu beharreko obraren aurrekontua aintzat hartuta. Nolanahi ere, jabetzak horrelako konponbidea jartzeko konpromisoa hartu du, hasierako obraren inbertsioa gainditu ostean.

2004. urtearekin alderatuta, askoz ere salbuespen gehiago jaso ditugu (27 espediente gehiago, % 26ko hazkundera). Nabarmentzeko moduko datu bat: salbuespenen erdiak Udal berak eman ditu.

Lurralde Historikoa	Udala	Salbuespen kop.
Bizkaia	Barakaldo	44
Bizkaia	Portugalete	11
Bizkaia	Santurtzi	10
Gipuzkoa	Donostia / San Sebastián	10
Gipuzkoa	Beasain	9
Gipuzkoa	Tolosa	5
Araba	Salvatierra / Agurain	4
Gipuzkoa	Errenteria	4
Gipuzkoa	Zarautz	4
Bizkaia	Durango	3
Bizkaia	Getxo	3
Bizkaia	Iurreta	3
Bizkaia	Mundaka	3
Gipuzkoa	Lasarte / Oria	3

Lurralde Historikoa	Udala	Salbuespen kop.
Bizkaia	Abanto / Zierbena	2
Gipuzkoa	Aretxabaleta	2
Gipuzkoa	Elgoibar	2
Gipuzkoa	Oñati	2
Gipuzkoa	Usurbil	2
Araba	Valdegovia	1
Bizkaia	Amorebieta / Etxano	1
Bizkaia	Arrieta	1
Bizkaia	Lekeitio	1
Bizkaia	Zaldibar	1
Gipuzkoa	Ordizia	1

Aurreko ekitaldietan bezalaxe, salbuespen ohikoenak honako hauek dira: jabeen komunitateetan igogailuak jartzearekin loturikoak, kasu askotan ezin baitira kabinaren eta sartzeko plataformaren neurriak egokitu, eskaileraren eta atariaren neurrien eraginez. V. eranskineko 3.3. artikuluko hori aplikatzea eragin zuen kasuistikari dagokionez, hona hemen laburpen-taula:

Obra mota	Salbuespen kop.
Lehendik bazegoen eraikinean igogailua jartzea	98
Ataria berritzea	1
Lokala egokitzea edo berritzea	
Sartzeko arrapala	16
Komun egokituak	2
Neurriz kanpoko gastua	9
Ez dago daturik	2
Urbanizatzeko obrak	2

5.- UDALETAKO IRISGARRITASUN PLANETARAKO ETA OBRETARAKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN DEIALDIA.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren helburu estrategikoa birgaitze-jardunak sustatzea da, gure ingurunea Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean agindutakoari egokitzeko; ez dugu ahaztu behar, gainera, gizarte-

berezitasuneko eraikin eta hiri-inguruneetako esku-hartzeak direla, eta gizarte-arloko erabilgarritasuna duten lehen mailako ekipamenduak jartzeko edo hiri-ingurunean ibilbide irisgarriak sortzeko izaten direla.

Udalenak eta herri-izaerako gainerako Toki Erakundeek diren eraikinak eta hiri-ingurunea birgaitzeko jardunak diruz lagundu izan ditu Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legean eta lege hori garatzeko arau teknikoetan ezarritakoaren arabera egokitzeko.

Bestalde, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2005eko maiatzaren 25eko Agindua dago, irisgarritasun-planak egiteko, eta hobekuntza-obra burutzeko eta hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko ekipamenduak erosteko Udalei, herri-izaerako gainerako Toki Erakundeei eta irabazi-asmorik gabeko eta onura publikoko erakunde pribatuei diru-laguntzak ematea arautzen duena eta diru-laguntzak jasotzeko eskabidea aurkezteko epea eta lekua zehazten dituen (103. EHAA, 2005eko ekainaren 2koa).

Udalentzako eta herri-izaerako gainerako Toki Erakundeentzako diru-laguntzetarako 2.390.000 € bideratu dira. Irabazi asmorik gabeko eta onura publikoko Erakunde Pribatuentzako diru-laguntzetarako, berriz, 500.000 € guztira.

Etxebizitza sailburuordeak 2005eko abenduaren 30ean emandako Ebazpenaren bitartez, hainbat diru-laguntza jarri dira udalen, herri-izaerako gainerako Toki Erakundeek eta irabazi asmorik gabeko eta onura publikoko Erakunde Pribatuen eskura, irisgarritasun-planak lantzeko, eta hobekuntza-obra burutzeko eta hiri-ingurunearen eta eraikinen irisgarritasuna bermatzeko ekipamendua erosteko (22. EHAA, 2006ko otsailaren 1koa). Ebazpen horren bitartez, Etxebizitza sailburuordeak honako hau ebatzi zuen:

1.- Honako Udal, herri-izaerako gainerako Erakunde eta irabazi asmorik gabeko Erakunde hauei **eskatutako diru-laguntzak emateari uko egitea**, honako arrazoi hauengatik:

Araba:

- Arrazua-Ubarrundiako Udala:

Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera.

- Ayala/Aiarako Udala:
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua araber.

- Campezo/Kanpezuko Udala:
“Zentro Sozialerako Sarbidea egokitzea” eta “Igerilekuetako Jasogailu Hidraulikoa” obretarako eskatutako dokumentazio osagarri osoa ez duelako igorri, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 5. artikulua araber.

- Elvillar/Bilarko Udala:
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua araber.

- Leciñana de la Oca administrazio-batzordea:
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua araber.

- Respaldiza/Arespalditzako administrazio-batzordea:
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua araber.

- Kripango Udala:
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua araber.

- Laguardiako Udala:
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua araber.

- Lanciego/Lantziegoko Udala
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua araber.

- Oyón/Oiongo Udala:
Irisgarritasun-obratzat jo ez den obra bat (Udal Zinemaren fatxada egokitzea) egiteko diru-laguntza eskatu duelako.
Eta, gainera, Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obrak Plan horretan bildu ez direlako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua araber.

- Ribera Baja/Erribera Beitiako Udala
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera.
- Salvatierra/Aguraingo Udala
Kultura Etxeko igogailuari dagokion obrak ez du diru-laguntzarik jasoko. 2005eko urtarriletik aurrera abian beharko zukeen obra horrek, 2810-2005. aginduaren 14. artikulua arabera.
- Vitoria/Gasteizko Udala
Eskatutako dokumentazio osagarria igorri ez duelako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Yécora/Iekorako Udala:
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera.

Bizkaia:

- Bermeoko Udala:
Eskatutako dokumentazio osagarria igorri ez duelako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Ereñoko Udala:
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera.
- Gauegiz Arteagako Udala:
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera.
- Lekeitioko Udala:
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera.
- Muxikako Udala:
Obrak ez du diru-laguntzarik jasoko oin-berriko obra delako eta birgaitze-obra ez delako, 2810-2005. Aginduaren 1. artikulua arabera.

- Nabarnizko Udala:
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua araberaz.
- Valle de Trápaga-Trapagarango Udala:
Diru-laguntzarako eskaera epez kanpo aurkeztu duelako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 3. artikulua araberaz.
- Izurtzako Udala:
Diru-laguntzarako eskaera epez kanpo aurkeztu duelako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 3. artikulua araberaz.

Gipuzkoa:

- Adunako Udala:
Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua araberaz.
- Anoetako Udala:
Renferen geralekurako Oinezko sarbideen obrarako dirulaguntzari formalki uko egiteko eskaera aurkeztu duelako. A2 Areako haur-parkearen sarbidea hobetzeari dagokion obra, aldiz, onartu da.
- Beasaingo Udala:
Eskatutako dokumentazio osagarria epez kanpo igorri duelako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren araberaz.
- Bergarako Udala:
“Tren-geltoki Zaharraren inguruen urbanizazioa, Kataibia 5-eko jarduna (Txabola Aldaketa), Kataibia-Oxirondo Urbanizazioa (2B-1 fasea) eta Kataibia- Oxirondo Urbanizazioa (2B-2 fasea)” Irisgarritasun Planean bildu ez direlako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua araberaz.
Honako obra hauek, aldiz, onartu dira: “Arrapalak eta baranda Torrekua Plazan, baranda Herri Lagunak kalean, Hainbat jardun Usondo parkean, eta Hainbat jardun Osintxu parkean”.
- Debako Udala:

Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera.

- Donostia/San Sebastián-eko Udala:

“Izogailuak Larratxo Pasealekuan eta Eskailera Mekanikoak San Roken” obrak Irisgarritasun Planean bildu ez direlako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera. Gainerako obrak onartu dira.

- Eibarko Udala:

Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera.

- Majori Kiroldegia:

“Aldagela eta Jasogailu Hidraulikoa birmoldatzea” obrarako eskatutako dokumentazio osagarri osoa ez duelako igorri, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 5. artikulua arabera.

- Eskoriatzako Udala:

“Haurreskola Eraikina Egokitzea, Epa Tokiko Oztupoak Kentzea, eta Tokiko Epaitegia eta Ludoteka Berritzea” obrak Irisgarritasun Planean bildu ez direlako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera. “Musika Eskolako obrak eta Dorleta Auzoaren Urbanizazioa” obrak, aldiz, onartu dira.

- Getariako Udala:

“Irisgarritasuna hondartzan: aulki anfibia” obrarako eskatutako dokumentazio osagarria ez duelako igorri, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 5. artikulua arabera.

“Irisgarritasuna kiroldegian” obra, aldiz, onartu da.

- Ibarako Udala:

Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera.

- Lezoko Udala:

Eskatutako dokumentazio osagarria igorri ez duelako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 5. artikulua arabera.

- Mutiloako Udala:

Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obra Plan horretan bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera.

- Urnietako Udala:

Eskatutako dokumentazio osagarria epez kanpo igorri duelako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 5. artikulua arabera.

- Usurbilgo Udala:

Irisgarritasun Planik ez duelako, eta, beraz, obrak Plan horretan bildu ez direlako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera.

- Zarauzko Udala:

“Hiri Ekipamenduak Erostea: Markesinak, Oztopo Zutoinak, Bizikleta Euskarriak eta Amaskar Kalean Eskailera Mekanikoak jartzea” obrak ez direlako irisgarritasun-obratzat jo.

Gainera, “Amaskar Kalean Eskailera Mekanikoak jartzea” obra ez da Irisgarritasun Planean bildu.

Irisgarritasun Plana eta “Irisgarritasun Planaren 1. fasea: Gainerako Pasabideak, Nafarroa Kalea, Orokieta Espaloia eta Axular kalea” obrak, aldiz, onartu dira.

- Zegamako Udala:

“Zupurruti Bidearen Irisgarritasuna” obra Irisgarritasun Planean bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera. Gainerako obrak onartzen dira.

- Zumarragako Udala

“Piedad” obra Irisgarritasun Planean bildu ez delako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 1. artikulua arabera. Gainerako obrak onartzen dira.

Irabazi-asmorik gabeko eta onura publikoko Erakunde Pribatuak:

Bizkaia:

- Familia Ekintza:

Eskatutako dokumentazio osagarria igorri ez duelako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Kirol Fundazio Publikoa:

Eskatutako dokumentazio osagarria igorri ez duelako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Zabaltzen-Sartu:

Irisgarritasun-obratzat jo ez den obra bat (Solairuartera Iristeko Eskailera Aldatzea) egiteko diru-laguntza eskatu duelako.

- Zubietxe:

Irisgarritasun-obratzat jo ez den obra bat (Hazkuntza Eguneko Zentroko Obrak) egiteko diru-laguntza eskatu duelako.

Gipuzkoa:

- Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa:

Eskatutako dokumentazio osagarria igorri ez duelako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Hautzaro Ikastola:

Diru-laguntza eskaera epez kanpo aurkeztu duelako, 2005eko maiatzaren 25eko Aginduaren 3. artikuluaaren arabera.

2. **Eranskinean** bildu diren Udal, Herri-izaerako Gainerako Erakunde eta Erakunde Pribatuei **diru-laguntzak ematea**, **eranskinean** zehaztutako zenbatekoaren arabera.

Laburbiltzeko, honako taula hauek erantsi dira:

Aurkeztutako eskaerak	
Udalak	100
Toki-erakundeak	4
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	12
Guztira	116

Erabat edo partzialki onartutako eskaerak						
	Guzt ira	Obrak		Planak		Emandako diru-laguntza
		K.	Diru-laguntza	K.	Diru-laguntza	
Onartuak	145	123	2.568.300,79 €	22	270.822,56 €	2.839.123,35 €
Ez onartuak /Eskatzaileek uko egindakoak	86					

Vitoria/Gasteiz, 2006ko abuztuaren 28a

Javier Madrazo Lavín jauna
 Irigarritasuna Sustatzeko Euskal
 Kontseiluaren presidentea

Sonia Samaniego Soto andrea
 Irigarritasuna Sustatzeko Euskal
 Kontseiluaren idazkaria